


Manuel
Tiago

BOST
EGUN, eta bi narrazio
labur
BOST
GAU

Hitzaurrea:
Ametz Arzallus Antia

Itzulpena eta hitzatzeara:
Iñigo Roque Eguzkitza




katakraK
2021-2022

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Manuel Tiago

BOST EGUN, BOST GAU

Eta bi narrazio labor

Manuel Tiago

BOST EGUN, BOST GAU
Eta bi narrazio labur

Hitzaurrea: Amets Arzallus Antia
Itzulpena eta hitzatzea: Iñigo Roque Eguzkitza

Jatorrizko izenburua (1974): *Cinco dias, cinco noites*
Lehenengo edizioa: *Bost egun, bost gau. Eta bi narrazio labur*
Egilea: **Manuel Tiago**

Jatorrizkoaren lizentzia: © Editorial «Avante!»

Argitalpen honen lizentzia: **CC BY-SA 4.0**

Barruko argazkiaren egilea: **Xavier Miserachs**

Barruko argazkiaren lizentzia: **CC BY-SA 4.0**

Hitzaurrea: **Amets Arzallus Antia**

Itzulpena eta hitzatzea: **Iñigo Roque Eguzkitza**

Zuzenketa: **Amaia Apalauza Olló**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2020ko apirila**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanErorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-43-3

Lege gordailua: NA 685-2020

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Ametz Arzallus Antia).....	17
BOST EGUN, BOST GAU	23
ETA BI NARRAZIO LABUR	
PIRINIOETAKO MUGA-PASA	93
SALBAMENDU-TXALUPA ETA ARMAIRUA	107
HITZATZEA (Iñigo Roque Eguzkitza)	125





ARGITALETXEAREN OHARRA **MUGA METODO GISA**

*Badakizu
non
dagoen Álvaro Cunhal?*
Pablo Neruda

1940ko irailaren 26an Lisboatik Ameriketara emigratzen ari zen Walter Benjaminek bere buruaz beste egin zuen Portboun (Herrialde Katalanak), Espainiako Estatuaren eta Frantziako Estatuaren arteko mugan. Bere lagun Hannah Arendten ustez arrazoi ezberdinak zeuden suizidio haren atzean. Benjaminek bazekien Gestapok bere Pariseko apartamentua konfiskatu zuela, bere liburutegia. Arendtek, bera ere etorkina, estatus desberdina ematen zion Benjaminen liburutegiari: nola biziko ote zen liburutegirik gabe? Nola «aipuen eta hautatutako pasarteen bilduma nabarmen» hura gabe? Naziengandik ihes egin zuen zeharkaldi horrek heriotzatik libratzen zuen Benjamin. Baina heriotzatik ihesaldian ez zen bizitza berri batera

gerturatzen ari: «ez zuen ezerk erakartzen Ameriketan»¹, ezingo zuen ezer egin han, esan ohi zuen bezala.

Arendten aburuz Benjaminen heriotza zorte txar batek sortu zuen. Ahula izan daiteke arrazoia. Baina migrazio garaikidearen parte nabarmen bat ez ote den zorte txar hori. Arendten kalibreko norbaitek ere hari dei egin zion etorkinen destino petral eta ohikoaz hitz egitean. Zeren, kontu burokratikoak tarteko, Benjaminek muga egun bat lehenago gurutzatzen saiatu izan balitz, ala egun bat beranduago, guardia zibilek ez zuten atxilotuko. Ez zuen naziengana itzultzeko izua sentituko, ez zuen bere buruaz beste egingo. «Gauetz egin zuen bere buruaz beste Benjaminek, eta bere kideei [biharamunean] mugako guardiek, hunkituta, utziko zieten Portugalera iristen».^{2 3} Egun hartan zen «soilik posible katastrofe hura». Migrazioak berezko duen katastrofea. Zenbat irauñ dezake lurreko ala itsasoko naufragio batek bizirik. Bestela esanda: zertarako bizirauten du naufragioak:

Naufragio bat noraezean itsas botakin baten gainean, jada hondoratzen ari den mastan gora doan bitartean. Baina badu handik erreskate seinale bat jaurtitzeko aukera.

Eta, ordea, jarraian aurkezten dizkizugun Manuel Tiagoren lanetan ez dago inolako seinalerik. Jarraian dauden fikziozko lanetan ez dago epopeiarik. Hauek dira migratzaileen liskar materialak. Migratzailearen

1 Hannah Arendt, *Vies politiques*, Gallimard: 1974 Paris. 266. or.

2 267. or.

3 1941eko udara arte ez zuen horren berririk izan Benjaminen lagun Bertolt Brechtek. Kaliforniako erbestera migratu zuen Brechtek, han jakin zuen. Eta hala jaso zuen bere egunerokoan hamar urte beranduago jasotako albistea: «Walter Benjaminek bere burua pozoitu du Espainiaren mugako herrixka batean. *Guardia Zibilak* [jatorrizkoan gazteleraz] bera zihoan taldetxoia gelditu zuen. Biharamunean kideak joan zitzaizkionean esatera bazutela aurrera jarraitzeko baimena, hilik aurkitu zuten».

kontakizunak dira. Ez dute bidaia liburuekin zerikusirik. Hemen kontatzen zaigu nola uzten den norberaren bizirautea esku arrotzetan, fidatzen ez zarenen gain. Kontatzen zaigu zer den iluntzean mendiak zeharkatzea, liliak zapaltzea. Gauren muturrean bezperako eta gaurko mendiek eta liliek berdinak dirudite. Eta berdin izutzen zaituela itxaronaldiak, pasatzailearen patxadak eta presak.

Migrazioa eta literatura

Azken hiru hamarkadetan 30.000 lagunek galdu dute bizitza Afrikatik Mediterraneo zeharkatzen saiatzen. Baina hau ez da giza eskubideen txosten bat. 36.000 lagun daude harrapatuta Greziako bost uhartetan deportazioaren zain. Baina hau ez da giza duintasunari buruzko manifestu bat. Hemen daukazunak dira nobela bat: *Bost egun, bost gau* eta bi ipuin: *Pirinioetako muga-pasa* eta *Salbamendu-txalupa eta armairua*. Baina hau ez da ornitologia gida bat. Gizakia bezain zaharra den dinamika bat da migrazioa, baina XX. mendean zehar gero eta arriskutsuagoa bihurtu da. Eta arrisku hori lantzen da hemengo hiru kontakizunetan. Arrisku horrekin bidaiatuko dute pertsonaiek. Mesfidantza erabatekoan. Hauskortasunez. Zeren mugapasan ari den etorkinari berdin zaio bere aurreko bizitza eta berdin da ostekoa. Berarentzat bizitza ez da bidaia bat zeren bidaian bizitza da jokoan dagoena.

Manuel Tiagoren hiru kontakizun jaso ditu Iñigo Roquek liburu honetan. Hirurek Walter Benjaminen kontrako noranzkoan egindako migrazioa kontatzen dute: Portugaldik Frantziara. Bigarren Mundu Gerraren ostean, Frankismo betean, Portugaletik Frantziara, Iberiar Penintsulan barna egindako milaka portugesen epepeiak erakusten ditu Tiagok.

Manuel Tiago nor den liburu honen ezkerreko hegalean azaldu dizugu. Bera ere etorkina izan zen. Baina, literaturaren tamalerako, milioika lagunek partekatutako egoera zehatzek (kontzentrazio esparru batetik bizirik ateratzea, adibidez) eta gertakizun nabarmenek (haurtzaroa, gaztaroa, mina, maitasuna, poza, hausturak, gaixotasuna, galerak) ez dute zertan artelan esanguratsurik sortu. Horren inguruko kezka zuen ere Edward Morgan Fosterrek esaten zuenean beti saiatzten zela bere buruaz hitz egiten «besteak beste gainontzekoen izenean hitz egitea ezinezkoa delako, ezinezkoa delako besteen azalen barnean sartzea, eta oso arrisurtsua delako talde baten izenean hitz egitea ala talde bat ordezkatzea, komunitate bat, nahiz eta guztiok egin dugun hori noizbait».⁴

Baina, honezkero idatzi dugu liburuaren ezkerreko hegalean: Manuel Tiago idazle, Shakespeareren itzultzaile eta margolari gorpuzgabearen atzean Álvaro Barreirinhas Cunhal pertsonaia ezaguna zegoen. Eta Cunnhalek espetxetik ihes egin zuen, klandestinoki migratu eta errefuxiatuta bizi izan zen hiru hamarkada luzez. Bazuen Fosterren literatur muga zeharkatzeko igarobaimena. Baina, aldi berean, bere fikzioetan Tiagok egiten du, nahigabe, jendetzaren ordezkariarena, etorkinena, izenik gabeko arimei forma zehatza ematen die. Zapatisteraz esateko: ahots gabeen ahotsa da.

Tiagoren lanok ez dira kronika bat. Ez dira erreportajeak. Ez da hainbeste pertsonaien patua interesatzen zaiona. Interesatzen zaio etorkinaren pertsonaia eta sortzen dituen harremanak: bakarda-dearekin, atzean uzten duenarekin, bidelagunekin, paisaiekin, jatekoarekin, landarediarekin eta ia ikusten

4 Edward Morgan Foster, *Algunos libros. Las charlas de E.M. Forster en la BBC*, Alpha Decay: 2018 Bartzelona. 280. or.

ez den etorkizunarekin. Literatura honen ekarpena da ikuspegiak zabaltzen dituela, Fosterren beldurrei jaramon ez egiteraino.

Giza trafikoa gurean

Ezagutzen duzu

Militão

ausartaren absentsia?

Pablo Neruda

Bi estatuen arteko muga batek erdibitzen du Hego EH eta Ipar EH. Muga hori zeharkatu dute mendez mendez, eta bi norabideetan, hamaika iheslarik, beren bizitza ala askatasuna jokoan zegoelako: juduak Gaztelatik eta Nafarroatik ihesi, faxismotik alde egiten zutenak Frantziara, naziengandik ihes egiten zutenak AEBetara Espainia eta Portugaletik, Comète sareko pilotuak, aliatuetatik ihes zebiltzan naziak, borroka armatu iraultzailea praktikaturakoak, errefuxiatuak, lan egitera doazen gazteak, magrebtarrak, afrikarrak, portugesak. Erbesteratuak, migratzaileak. Eta zeharkaldi hori egiten zutenak lagundu dituzte justziarengatik muxu-truk aritutakoek, eta lagundu dituzte negozioan aritu direnek. Egon da militantzia eta egon da giza trafikoa.

Orain hasi da mendez luzez idealizatutako mugalarien historia hori osatzen. Besteak beste, nabarmentzeko modukoa da, iturri ezberdinekin Iñigo Roquek liburu honen hitzatzean egindako konpilazioa, euskaraz eta EHN portugesen muga-pasaz idatzitakoa jaso du (Manuel Tiago «Portugaleko Sarrionandia»ren enbaxadore lanetan aritzeaz gain). Giza trafikoa eman zen bailaretatik kanpo ia ez dira ezagutzen pasadizo

hauek, zeren jende jator askoaren fortuna kriminalak dira bertan gertatutakoak.

Eta dinamika berean nabarmendu behar dira azken hilabeteotan argitaratutako beste bi lan. Egungo muga-pasei buruzkoak, liburu honi berari hitzaurrea egin dion Amets Arzallusen *Miñan* (Susa 2019) eta Mikel Garciaren *Pape Niang. Hasiera berri bat* (Argia 2019).

Ez da atsegina jarraian irakurriko duzuna. Zeren bizirautea bera baita sasian mugak zeharkatuz migratzen duenaren egunerokoa. Mehatxuen eta zaplastaden artean uzten zaitugu. Guk bailara hostotsuak eta errekek ikusten ditugun tokietan, bailarez eta errekez gain Tiagok heriotza, izua eta duintasun galera erabatekoa erakutsiko digu. Zeren John Bergerek kontatu zigun bezala, bidaztiak atze-oihala ikusten duen tokian geologoak, abeltzainak eta adi dagoen idazleak eszenario bat ikusten dute. Atze-oihala paisaia da zentzu mundutarrean: kontenplaziorako toki bat da ala toki kontenplatu bat. Eszenarioak, bestalde, badu errealetik baina badu perspektiba bat. Ibaiertzean harriak ikusten ditu eta, aldi berean, badaki gorpu bat topatu zutela han 1985ean. Ala badaki baserri bat egon zela han, abandonatu zutena 1936an. Geologoak, abeltzainak eta Tiagok ikusten dute dagoena eta egon zena. Eta badakite sasiarte egotean zein hauskorra den gizakia, izan Walter ala André.

Hau da estreinako Tiagoren zeharkaldia euskaraz. Baina bada literatura molde baten estreinako pausoa ere.

Iruñea
2020ko otsaila

HITZAURREA

Migranteak

Irun. 2020ko urtarrilaren 11. Larunbata. Goizeko hamaikak eta erdiak. Eguzki hotza.

Herriko etxeke balkoian hiru bandera daude: ikurrina, espainola, eta Europakoa. Eta bandera horien azpian beste herri batzuk ikusten dira. Beste hizkuntza batzuk entzuten; pularra, banbara, malinkea, frantse-sa. Larunbatez eta igandez astegunez baino askoz ere migrante gehiago iristen da, eta gaur hogeita hamar bat dira. Batez ere gizonak, mutikoak, nerabeak. Baina tartean badira emakumeak, emakumeak eta haurrak. Titiko haurrik ez gaur.

Irungo Harrera Sarearen «aldagela»ra eraman eta jendeak emandako arropen artean egoki zaizkien hautatzen dituzte. Oinetako single beltzak erantzi, beste mende bateko beroki beix koadrodun hori utzi, eta beste zerbait jantzi, zerbait beroa, eta ahalaz, diferentea. Bereiz daitezten beren artean ere, ez bakarrik guregandik. Espainia zolara iristean migrante denei oinetako, jertse, eta beroki berdinak ematen baitzaizkie, «migrantearen uniformeak», European zehar disimuluan

ibili daitezten, inork ez dezan jakin nondik datozen, zer diren. Beraz, Iruna heltzean, lehen lana horiek aldatzea da.

Gero, beren beharrei erantzutea. Adibidez, zer-bait jatea, edo ondoan eseri eta pixka batean isilik egotea. Ezer galdetu gabe, ezer erantzun gabe. Arnasa hartzen utzi eta denbora eman. Kafe bat. Boluntarioaren eta migrantearen arteko distantziak laburtu arte, konfiantza pixka bat egin arte. Hori ere behar bat baita, eta ez txikia. Azkenean non dauden esplikatuko zaie. Non dauden haiek, eta non dagoen muga.

2018an zortzi mila migrante baino gehiagori egin zien Irungo sareak harrera, eta beste hiru mila pasari 2019an. 2020an ere iristen segitzen dute, egunero. Asteburuetan astegunetan baino gehiago. Hogei, edo hogeita hamar, edo are gehiago. Eta ez dakizu oso ongi zergatik. Itsasoa ilargiak darabil, paterak beste zerbaitek.

«Asteburuetan mugan kontrol gutxiago egoten da», hori da beren artean komentatzen dena.

Irungo Harrera Sarearen funtzioetako bat migratzaileak «pasatzaileen» esku garestietatik libratzea da. «Hemen ez duzue muga zeharkatzeko inoren beharrik». Hori da ematen zaien mezua. Irundik Hendaiara garraio publikoan joan daiteke, edo oinez bestela, ez da hesirik saltatu edo mendirik eskalatu edo itsasorik zeharkatu behar. Zubi bat dago, lau-laua da.

Izatekotan furgoneta zuri bat egoten da: *La Police*.

Pasatzaileak

«Pasatzaileak» Irungo Renferen geltokian egoten dira zain, edo plazan bestela, zer suma. Batzuetan aurrez egina dute tratua, telefonoz, auskalo nola. Bestela momentuan gertatzen da dena. Hiruzpalau

hitz eta bospasei keinu eta migranteak konbentzitzen dituzte, konbentzitzen edo. –Iruna iritsi den migrantea ez du inork konbentzitzen honezkeru, baina bere fede galdu hori noren alde aplikatu erabaki behar du-. Orain 80 euro eskatzen dituzte, edo 100 euro, G7aren garaietan muga-pasaren prezioa 1.500 euroraino iritsi zen. Batzuk, dirua jaso, arratsalderako zitatu, eta ez dira sekula itzultzen. Beste batzuk, itzultzen dira, adostutako prezioa ordaindu duten bizpahiru migranteak hartu, autoan sartu, Hendaia-raino eramán, eta han uzten dituzte, ipar orratzik gabe, polizien harrapakin. Bakan batzuk badira hitz eman bezala muga zeharkatu eta Baionako migranteen harrera etxeraino eramaten dituztenak, eta beren bidean aurrera egiten «laguntzen» dietenak. Zerbitzua egiten diete, zerbitzu garestia, baina zerbitzua, nolabait. Azken muga gainditzen laguntzen diete, Euskal Herria zatitzen duen muga hori. «Pasatzaileak» gabe zeharka daitekeena.

Baina hori guk dakigu, migranteak ez. Migranteak muga bat ikusten duen lekuan «pasatzaile» bat bilatzen du, kosta hala kosta. Bide guztian egin duen bezala, halabeharrez. Izan, «pasatzaileak» migranteen makuluak dira. Makulu okerrak, makulu gaiztoak, makulu lapurrak, nahi den bezala deitu, baina makuluak. Diruak mugak ixten segitzen baitu, zabaltzeko ere horixe behar.

2020ko urtarrilaren 28a, asteartea, gaueko ha- maikak, Irungo Renferen tren geltokia. Vigotik zetorren Alsa autobusak hiru migrante espaloi ertzean utzi ditu, eta Irungo sareko bolondresak hurbildu baino lehen, «pasatzaileak» eramán dituzte. Auskalo nora, auskalo zer preziotan. 80 euro, edo 100, auskalo zenbat kendu dieten.

Bidean pilatutako zorra beste pixka bat handituz, lehenago txikia bazen.

Bi txiro

Ea hau ongi esaten asmatzen dudan. «Pasatzai-lea» ofizio ederreko pertsona da, mugek gotortutako mundu bat arrakalatzen du, beharrean den jendea laguntzen du, teorian. Praktikan, ustelak jan du teoriaren ederra. «Pasatzaileak» ezer gutxi duenaren bizkar egiten du sosa, askotan prezio desorbitatuak eskatuz, eta erreklamazio orririk eskaini gabe. Batzuetan, zerbitzurik ere eman gabe. Ostu eta ospa. Akabo. Bai, akabo. Migranteekin «negozioa» egiten ari den jendea ofizio eder baten bertsiorik makurrena da.

(Baina deabruaren eraikuntzan beti zerbaitek egiten du krak. Adibidez, muga ertzeko argazki honen: «pasatzaile» batzuk magrebtarrak edo Afrika beltzekoak dira, jende txiroa. Zerk eraman ote ditu, hola, inolako errukirik gabe, beren herrikideekin trafikatzera?)

Muin-muinean, sistema bera da «pasatzaileak» sortzen dituen. Sortzen, justifikatzen, eta blindatzen. Mugak zakur armatuekin zerratzen ditu, eta bide batez muga-pasak garestitzen. Migranteak inolako paperik eta babesik gabe uzten ditu, eta bide batez, «pasatzaileen» jostailu bihurtzen. Edo zuzen-zuzenean, besterik ezean, «pasatzaile» bihurtzen. Azkenik, inoiz edo behin, «pasatzailearen» bat atxilotzen du -agian aduanan komisiorik ordaindu ez duena-, eta besteak libre uzten. Segi dezaten, migranteak hara eta hona erabiltzen, sistemak asmatuko baitu horiek oro nola trituruatu.

Adibidez, inork egin nahi ez dituen ordaindu gabeko lanak eginez. Edo klase zapalduenen ezina eta

amorrua husteko giza kontainer bihurtuz. Edo biak batera, zergatik ez. Harri batez bi txori.

Edo txiro bi.

Amets Arzallus Antia
Hendaia, 2020ko otsaila

BOST EGUN, BOST GAU

*Manuel Tiagoren lan hau Até Amanhã, Camaradas
eleberriarekin eta beste zenbait originalekin batera aurkitu
zen artxibo klandestino batean.*

1

Andrék artean hemeretzi urte ez zituela emigratu behar izan zuen. Dirua eskuratu zioten, Portoko helbide bat eman, eta esan zioten hantxe jakingo zuela nola igaro Espainiako muga. Kontua, ordea, ez zen hain erraza izan. Porton, gomendatutako pertsonak lehenbizikotan ziurtatu zioten ezin zutela deus egin. Bi aste gogaikarri itxaron behar izan zuen, harik eta azkenean Lambaça delako baten izena eman zioten arte. Kontrabandista bat zen, André Espainia aldera eramateko prest omen zegoena mila ezkuturen truke. Eta segituan gaztigatu zioten:

—Morroia fitxatuta dago liskarreatatik, laban-kadengatik eta, agidanez, baita lapurretatik ere.

Andrék onartu egin zuen eskaintza, eta gizona aurkeztu zioten.

Porto-Campanhãko geltokiaren inguruan izan zen hitzordua, hiriaren erdialdetik urrun, desorduetan eta bakarleku batean. Gaua iluna zen, hezea, freskoa eta haizerik gabea. André eta aurkezpenak egingo zituen kamarada hesiaren ondo-ondotik ibili ziren tarte batez, isiltasunaren minean maniobretan ari ziren

bi bagoiren arteko talka metalikoa adituz, eta, gero, burdinbidera atera ziren. Beste ehun metro egin, eta gelditu egin ziren, erne. Ilunpean eta isilik, zigarreta bat diz-diz ari zen metro batzuk harago.

—Trena pasatu da —esan zuen kamaradak, hari-ra ez zetorrela.

Zigarretaren ñirñir txikiak arrapostu eman zion hiru kliska eginez ilunpetan. Harengana inguratu ziren. Erretzailearen irudia zehaztu egin zen; bera ere inguratu zitzaien.

—Hauxe duzu laguna —esan zuen kamaradak.

Ez zegoen jakiterik nortaz ari zen, Andréz, erre-tzaileaz edo biez.

Andrék haren esku ihar, hezurtsu eta zakarra tinkatu zuen. Orain, hurbilean, berriro bizitu zen zigarretaren ñirñirra. Andrék bibote beltz bat eta begitarte beltzaran zorrotz bat barrundatu zituen, ikusi baino gehiago.

Hiru giza irudiek, burdinbide ondoko ezponda jaitsi, eta zidor itzaltsu bat hartu zuten, itxura nahasiko zuhaitz-errenkaden artean. Olio-urrin ezti apal bat zerion aireari. Maniobrak egiten ari ziren bagoien arteko talka aditu zen berriro, bat-batean eta ezustean, ordukoan urrunago.

Aurrerago gelditu ziren. Lambaça eta André, elkarri begira, saiatu ziren igartzen zer gizon klaserekin ari ziren tratuan. Ilunetan, ordea, ez zuten deus ikusten.

Biharamunean egin zituzten elkarren ezagutzak, beste hitzordu batean. Lambaçak, txikia eta iharra bera, 40 edo 50 urte izango zituen; begitarte goibela zuen, beltz-beltza, eta are ilunagoa bizar sarria, biboteko erratz beltza eta begi beltz erneak zirela eta. Janzkera aintzat harturik, traje beltz zimur eta estua

eta kapela orobat beltza bekainen gaineraino hondoratu, igandeko arropaz jantzitako laborari bat zirudien. Gorpuzkeran, soinaren zurruntasunean eta hanken jarreran, keinu eta adikuneetan, ordea, bazuen zerbait laborari arrunt batengandik bereizten zuena, zerbait mutiri, ausart, ozarra.

André ere txikia zen, mehea eta beltzarana. Buruhas, ilea bekokiaren gainera erortzen zitzaion. Haren aurpegiera tenkatuan, gaztetasuna gailentzen zen oroz gain.

Ez zuten begiko izan elkar, inondik ere. Lambaçari, ordura arte buruzagi handiren bat bestaldera eramane beharko zuelakoan egona baitzen, haurtxo kaltegabe bat iruditu zitzaion André, beraren lana hutsaren pare uzteraino. Andréri Lambaçaren itxurak eta karantzak biziagotu zioten haren izaeraren alderako mesfidantza eta ezpa.

—Aurrera egingo dugu —esan zuen Lambaçak agintari eta destainaz, gaztea mespretxuz goitik beherra aztertuz—. Ohituta al zaude ibiltzen? Bide luzea egin beharra dago eta.

Andrék lasaitu egin zuen alde horretatik.

—Tira —Lambaçak ekinean—. Ez da hori bakarrik. Ez zaitut batere ezagutzen, eta gauza hauek gizonen kontuak dira. Aise eramane zaitzaketa bestaldera, baina kozkorra eduki beharra daukazu.

—Ez kezkatu —erantzun Andrék.

Lambaçak bizitu egin zuen ibilera. Isilik ibili ziren pixka batez, eta Andrék ikusten zuen besteak ez zuela deus eransten. Kezkaturik antzean kapela beltzaren gerizpean, bazirudien ez zela konturatzen beste inorekin zegoela.

—Noiz irtengo gara? —galdetu zuen azkenik Andrék.

—Noiz irtengo garen? —Lambaçak, itxura batean oneraturik, gelditu, eta gazteari begiratu zion, partez harriduraz, partez trufaz.

—Bai, noiz irtengo gara?

Lambaçak gogoeta egin zuen apur batean, eta, astiro eta axolagabe, handik hiru egunera jarri zuen hitzordua, goizean goiz.

—Esan didate bihar izango dela —esan zuen Andrék.

—Neuri ere esaten dizkidate gauza asko —ihardetsi zuen Lambaçak, sorbaldak uzkuratuz.

Eta, besterik gabe, eskuarekin keinu labur bat eginda, zeina berdin izan baitzitekeen despedida bat edo gazteari itxaroteko egindako seinale bat, taberna bateko atean barrena aienatu zen.

Jokabide hura nola ulertu asmatu ezinik, Andrék itxaron egin zuen minutu batzuetan. Halako batean, ordea, alde egitea erabaki zuen.

—Alferrik ari naiz —pentsatu zuen—. Ez da agertuko.

2

Agertu egin zen, ordea. Agertu, eta taberna batera eraman zuen André. Han, ogia eta arrain frijitua eskatu zituen, eramateko; baso bat ardo edan, eta, gero, berak erosi zituen treneko txartelak, eta bagoia aukeratu. Aho-zikina zen, baina liskar bila edo irainka aritu gabe.

Ordu batzuk egin zituzten trenean, anoa jan, eta, eguerdi aldean, trenetik jaitsi ziren eguzkiak arraitutako herri koxkor batean. Han, furgoneta bat hartu beharra zeukaten, muga aldera abiatzeko. Inguru hartan, kontrola zorrotzagoa zen, eta komeni zen arriskuak saihestea. Furgoneta polizia-postu bat zeukan herrixka batetik igarotzen zen. Lambaçaren esanetan, ohikoa zen han bidaiariei dokumentazioa eskatzea. Lambaçak aginduak ematen dituenaren plantan azaldu zuen zein zen plana, egiaz aginduak ematen ari baitzen:

—Hara nola egingo dugun. Furgoneta gelditze-ko eskatuko dugu postura iritsi aurretik. Zu jaitsi, eta aurrera segitu, lasai arraio. Postuko atearen aurre-aurretik pasatuko zara. Oinez joanda, poliziek pentsatuko dute alorrera lanera zoazela, eta ez dizute ja esango.

Errepidean barrena segi, bizi-bizi, baina arineketan egin gabe. Furgoneta postuaren aurrean geldituko da, miatuko dute, eta, zure parera iristen garenean, furgoneta gelditzeko eskatuko dut berriro igo zaitezzen.

Andréri oso badaezpadakoa iruditu zitzaion dena, ausartegia.

—Hola-hola pasatzen uzten dizute postukoek, ala? –galdetu zuen—. Susmo txarra hartuko dute, gainera, bidaiariek eta gidariak.

—Hori nire kontu utzi –moztu zuen Lambaçak.

Gazteak zalantza egin zuen pixka batean, kontrabandista despeditu eta trena kontrako noranzkoan hartu ala ez. Ez zuen halakorik egin, ordea, haren begi txiki beltz distiratsuen behakoari zerion gaitakeriagatik. «Beldur haizela ematen dik», zioten begiok.

Furgoneta irten arte denbora egiteko, Lambaçak taberna batera eraman zuen laguna, eta zurrutean hasi zen. Andrék, muzindurik, ez zion lagundu, eta ate alde-
ra egin zuen, kanpora begira. Besteak ez zion, itxuraz, kasurik egin. Barraren kontra jarrita, hurrupa txikitan edaten zuen ardoa, aldika bibotea poliki garbituz esku-
gain hezurtsuarekin. Begiak ñarroturik zeuzkan, logale eta txoritan balego bezala.

Halako batean, furgonetara sartu, eta han abiatu ziren, emeki eta punpaka, errepide hautsez eta zuloz betean barrena; furgoneta txitean-pitean gelditzen zen, herrixka hits mortuetan, non hitz gutxiko laborariak igotzen eta jaisten baitziren. Andrék, Lisboan jaioa eta han beti bizi izana bera, jakin-minez so egiten zien paisaiari eta jendeari; neskak aztertzen zituen; otarrak jaisten laguntzen, eta, batari eta besteari behatzean, bere begi garbietan nabari zitzaion solaserako eta bizikidetzarako gogo gaizki bridatua. Haren aldamenean,

tente eta zurrun, zigarretak erre eta erre, Lambaça zihoan, txintik esan gabe.

Ustekabean, txilinarekin sokatik tira egin zuen Lambaça, eta ukondoarekin jo zuen laguna. «Orain!», pentsatu zuen Andrék.

Furgoneta gelditu, eta André jaitsi egin zen.

Etxe-errenkadak ikusi zituen albo banatara, eta, beheraxeago, zenbait lagun furgonetari eta berari begira. «Postua», pentsatu zuen. Furgoneta abian jarri zen berehala, eta astiro segitu zuen noranzko berean. «Gizon hau jota dago, ala? –pentsatu zuen Andrék–. Etsaiaren agerian hola aritzea ere». Furgonetak aurrera egin zuen; taldea berari begira zegoen oraindik; haien artetik, Andrék bi gizaseme begiztatu zituen, hiriko janzkerakoak eta ile gominaz orraztuak biak, buruak jakinguraz goratzen.

«Burugabekeria galanta! Burugabekeria galanta!», ari zen bere artean. Furgoneta aurretik pasatu zitzaion, eta postuaren aurrean gelditu zen azkenean. André hogeit hamar metro eskasera zegoen. Errepidearen beste aldera joan eta furgonetaren babesean pasatu? Ala aurrera segitu eta taldearen erditik igaro, ia baimen eske edo polizia berak ukondoekin sakatuz? Ez zuen astirik izan erabakirik hartzeko. Konturatzerako, posturaino iritsi, eta taldearen erdian zegoen. Neskato bati lastan egin zion, zergatik ez zekiela, «Kaixo!» lagunkoi bat esanaz batera; horretan, bi agente begiluzeren aurpegiak ikusi zituen aldamenean berari begira; ukondoak erabiliz bide egin zuen hiru laborariren artean, eta, furgoneta eta postua atzean utzirik, lasterrari emateko gogoia etorri zitzaion. Poliziak begira zeuzkalakoan, ordea, baratxe-baratxe, patxada bitxiki atsegingarri batekin, lokarriak estutzeko itxurak egin zituen. Hantxe plantaturik, etxe batera eta bestera begiratu zuen, zer-

bait aztertzen ariko balitz bezala, eta berriro ekin zion bideari, emeki. Urrats geldo eta itxuraz sosegatu bakoitzean, espero zuen atzetik «Pst!» agintezko bat aditzea, eta dena galduta egongo zen. Ez zen halakorik izan, baina. Urrundu egin zen; etxeak pasatuz joan ziren; errepideak eskuinetara hartu zuen, postukoen bistatik kanpo, eta ez zen aparteko ezer gertatu.

Herrixkatik kanpo zegoela ohartzean, Lambaçak esandakoaz oroitu, eta ibilera bizitu zuen, lasterka txikian ia. Bi kilometro pasatxo egin zituen gisa horretara, furgoneta etortzen aditzeko esperantzan. Baina etorri ez. Eguzkiak gogotik berotutako errepide isilean ez zen arimarik ikusten.

Malda luze bateko bihurguneak hasiaz batera, aurrealdean mendi bakartiak ageri ziren. Berantetsirik zegoen, kezkatan. Etorriko al zen benetan? Ala ziria sartuko zion? Postuaren ondoko maniobra hura ez zen, ba, izango bera entregatzeko jukutria bat, beraren kontrako akusazioak estaltzeko?

Beste kilometro bat egin zuen errepide bakartian barrena, eta gelditu egin zen, estu eta adoregabeturik. Bide-ertzean eseri bezain laster, motor bat orroka aditu zen hurbil, eta furgoneta azaldu zen aurreko bihurgunetik, eguzkiak urreztaturiko hauts-laino bat atzetik zekarrela. Andrék jauzi egin zuen errepidera. Azkenean!

Furgoneta hurreratu zen, maldan gora marruka, baina Andréren parera iristean ez zuen martxa moteldu ere egin: aurrera segitu zuen, betiere maldan gora marruka. Andréri begitandu zitzaion beso bat ikusten zela leihotik kanpo airea astintzen. Hauts harrotuak estali eta itoarazi zuen. Motorraren marrua luzaro aditu zen, gora eta gora, mendialdearen lakarra iragarritz. André engainatua sentitu zen, tranpa batean erori

balitz bezala. Ergel eta inuzente sentitu zen; Lambaça-renganako gorrotoa erretzen zeukan barruan, eta ez zuen ezer ulertzen.

Benetan ikusia al zuen beso hura leihotik kanpo airea astintzen aurrera segitzeko esanez? Lambaça al zen? Edo beste norbait fruta-azalen bat botatzen? Edo airearen indarra besterik gabe neurtzen? Ezin jakin. Ondoriorik atera aurretik, baina, gorputzak men egin zion egiazko edo alegiazko beso haren deiari.

Eta mendian gora abiatu zen lasterka, itolarrian eta estu, motorraren atzetik, hura urrunean marruka aldentzen zen bitartean.

3

Zeharkale mehar bateko taberna batean aurkitu zuen Lambaça, edanean. Andrék hamar kilometro baino gehiago eginak zituen herriraino, ibilian eta lasterka. Tabernarik taberna ibilia zen miaka, eta, orain, hantxe zegoen, izerdi-lapatan, lagunari isilik eta amorruez begira. Irudi zuen esaten ari zela: «Ez hengoen nire esperoan, ezta? Ez haiz nitaz hain aise libratuko, adiskidea!».

Lambaçak ustekabe-keinu sotil bat egin zuen, segituan menderatu zuena. Edaten amaitu zuen, astiro-astiro; eskugainarekin bibote beltzaren erratza garbitu, eta gaztea kanpora eramane zuen. Poliziak denei eskatu omen zien dokumentazioa. Furgonetaren barruan ere etorria zen. Ezin izan zuen gelditzekorik eskatu.

Andrék ahots latz eta asalduz erantzun zion. Hala izan bazen, zergatik ez zen beraren bila joan? Eta zergatik sartu zen taberna batean kale gorde hartan? Nolatan fida zitekeen berarengan?

Lambaçak lotsagabeki begiratu zion pixka batez. Gero, erantzun gabe, sorbaldak uzkurtu, eta zigarreta bat biltzeari lotu zitzaion, patxada atzamar hezurtsu eta urduri haietarako argiki bortxatuan.

—Orduan zer asmo daukazu, ba? —erantsi zuen Andrék sumindurik—. Damututa al zaude hartutako konpromisoaz? Beldur zara? Ala diru gehiago nahi duzu?

Lambaçak, biltzen ari zen tabakorritik begiak altxatu, eta berriro begiratu zion besteari, geldiroago. Haren begiradan baziren mehatxua, trufa eta ezin asmatuzko beste zer batzuk. Zigarreta biltzen amaitu, eta piztu zuen.

—Hobe dugu mokadu bat egitera joan —esan zuen.

Biek ala biek mauka-mauka jan zituzten erretilu-ko bakailao eta barbantzuak. Lasterraldiak egarriturik, Andrék zenbait baso ur edan zituen, eta Lambaçak beste horrenbeste baso ardo. Kapela kendu gabe, jaka beltza erantzi zuen; gero, errebolber zilarkara erraldoi bat egokitu zuen patrikan, Andréren bista-bistan. Tirante tenkatuegiek alkandora erauzten zioten, sorbalda gihartsuak azaleratuz. Otordua amaitu arte ez zuen murtik esan, mintzoa ordurako ardoak pasatua zuela, are trufariago eta harroputzago.

—Zure lehengo galderari erantzun nahi nioke, adiskidea. Hara zein den nire ideia: mila ezkutu gutxi dela —Haren begi beltz ironikoak ez ziren Andrérengandik aldentzen—. Bi mila ondo legoke.

«Doilorra halakoa!», pentsatu zuen Andrék.

—Bi mila jasoko dituzu —esan zuen.

—Ba al daukazu?

Gazteak bekokia ilundu zuen, haserre bizioan. Haren eskuak, mahaia zeharkatu, eta Lambaçaren eskumutur bilotsu urduriari oratu zion.

—Norekin uste duzu ari zarela? Ala edanak mintzarazten zaitu horrela?

Suminez begiratu zioten elkarri. Gero, Lambaçaren esku libreak Andrérenari oratu zion, kurrika batek bezain tinko, eta askatu egin zion eskumuturra.

—Ba al dauzkazu? —errepikatu zuen.

Andrék patrikara eraman zuen eskua; sobre bat atera, eta zabaldu zuen. Zenbatekoa eskatutakoa baino nabarmen handiagoa zen.

Lambaçak irribarre desatsegin bat egin zuen, ardo-kiratsa zeriola, hortz ilun hondatu batzuk erakutsiz.

—Ongi da. Konforme. Bi mila.

4

Iluntzen hasia zuen tabernatik ateratzerako; Lambaçak kale zahar meharretan barrena eraman zuen laguna, zekale egosiaren urrin gazi-gozo moduko bat airean zebilela. Kalexka harritsu bat harturik atera ziren herritik, hesi eta horma artean bihurrika jaitsiz. Laborari batzuek, lanetik etxerakoan, harridurarik gabe agurtzen zituzten haiekin gurutzatzean. Kalexkaren muturrean, belar eta errekarri artean, errekastobat zihoan pol-pol, eta haren freskura asma zitekeen giroan. Luzaroan, ilunetan ibiliz, errekastoarendotik eraman zuen Lambaçak laguna, sasiarteana, gora eta behera. Zuhaixkak baztertzen zituen, zuloez eta harritzarrez gaztigitzen, eta, aingira beltz baten pare, txaraka ia zeharkaezinean barrena irristatzen zen. Bazirudien tematurik zegoela Andréri erakutsi behar ziola, ardotan zopatuta egon arren, ingurua ederki ezagutzen zuela. Aldian behin gelditzen zen. Ez duda egiten zuelako. Zutik, gorputz txikia, atezuan eta zurrun, inguruka hasten zen astiro ilunetan, burua alde batera eta bestera mugituz, arriskua barrundatzen

duen animalia bat bezala. Gero, deblauki segitzen zuen aurrera.

Alor labakitu batean gelditu zirenean, baziren hiru ordu luze herritik atera zirela. Armiarma batek larruazal izerditua ferekatu zion ezustean. Lambaçak, ezponda batean eseri, eta zigarreta bat biltzeari ekin zion.

—Pasatu al gara bestaldera? —galdetu zuen Andrék.

Lmbaçak, zigarreta biltzen amaitu, eta sugar gorri begi-mingarri batekin piztu zuen. Tiraldi batzuk egin zizkion, eta, orduan, barrez hasi zen, karkaila lehor behartu batekin. Ez zuen erantzun.

Bistan zen ez zirela pasatu. André gero eta gutxiago fidatzen zen gizon harengan. Zer amarru ibiliko zuen buruan?

—Pasatuko al gara gauean? —zuzendu zuen.

Lmbaçak beste ke-aldi bat hartu zuen, eta Andréri iruditu zitzaion argi gorritzaren gainean begi txiki beltzak ikusten zituela berari gaiztakeriaz begira.

—Honelako gauzak ez dira hola egiten, adiskidea? —esan zuen etorkor.

—Non egingo dugu lo? Hemen?

Nekaturik zegoen, eta logale zen. Furgonetaren atzetik eginiko lasterraldiak zitzada zorrotz bat utzi zion biriken azpian.

Lmbaçak sorbaldak uzkuratzen ikusi zuen ilunetan.

—Nire kontu hori —erantzun zuen.

—Ez, adiskidea —ihardetsi Andrék—. Orain nire txanda da: gauzak ez dira hola egiten. Ez naiz itsuman-doka ibiliko, ezta pentsatu ere. Zein da plana?

—Hitz egin apalago, hitz egin apalago —gomen-datu zion Lambaçak aita-plantetan.

Eta isilik geratu zen, tarteka zigarroa zupatzuz, ardoa hurrupatzeko zerabilen likiskeria beraz.

—Orduan? Zein da plana? —Andrék, ahots apalagoz baina larrimina azaleratuz.

Besteak ez zuen berehalakoan erantzun, eta orduan ere astiro.

—Oraindik ere atzera egiteko moduan zaude, lasai.

Atzera egin? Atzera egin bakarrik, non eta han, noiznahi enkontru makurren bat izateko arriskua sumatzen zen mugaldeko eskualde hartan. Lambaçak bazekien hura beraren pekora zegoela, eta gozatu egiten zuen horretaz, lasai asko.

Andrék, haatik, ez zuen amore eman. Muga-pasaren garrantziaz mintzatu zitzaion, ahots bare eta limurtzailez, eta aurrera makurtu zen, bestearengan imintzio edo espresioaren bat atzeman nahirik. Gauaren ilunean, Lambaçak, harri bat bezain geldi, ez zuen zirkinik egin. André isildu zelarik, orduantxe hitz egin zuen, hitzak destainaz zezelduz:

—Hogei urte badira horiek guztiak dakizkidala.

Horrenbestez, jaka erantzirik eta lurrean zabalduz, alkandoraren zuria eskaini zion gauari, eta errebolberraren metalari ñir-ñir eragin zion, gerrikoan egokitzean. Murtik esan gabe alden du zen, eta askoz geroago arte ez zen itzuli.

5

Gauerdia hurbil zela, etxe ilun batera inguratu ziren, bakarleku batean. Etxearen barruan, emakume bat garrasika ari zen, bere onetik aterata. Txakur batek zaunka egin zuen. Goialdean, atartean, atea argi horizko laukizuzen bat ireki zuen gau aldera, mulko beltz batek berehala estali zuena.

—Douro!

Txakurra, mur-mur egin, eta isildu zen. Etxe barruan garrasika ari zen emakumearen ahotsa kanpora itzuri zen, jareginik.

Eskailerak igo zituzten.

—Hara! Zeu zara eta! —esan zuen atea ireki zuen emakumeak. Atso lodi bat zen, buruzapi beltz erraldoi bat zeramana—. Segi barrura.

Sartzean, garrasika ari zen emakumearekin topo egin zuten segituan. Hark ez zuen buelta ere hartu, ezta diosalari erantzun ere. Josteko makinaren ondoan, txingarren gainean bezala punpaka ari zen aulkiaren gainean, zeta urdinezko txatal zoragarri bat eskuan hartuta zeukala, garrasika betiere.

—Zertarako? Zer dela eta? Adar-jotze galanta!
Hara! Oker dago, baina! Bai horixe: oker dago! Ebakiko dizkiot nik hegoak hari, krix-krax! Beti, beti, beti, beti, makurkeria bera! Zertarako eta ni ernegarazteko! Min emateko!

Emakumea atsoarengana bihurtu zen, begiak bisitarien gainetik pasatuz, haiek ikusi gabe. Lipar batez haren begitartea argitu zuen kriseiluak, bete-betean. Sumindurik, ileak nahasirik, zapia bizkarraldera erorita, amorraziozko begiek trunpilo suzkoak ziruditen, eta ahoari lerdea zerion bibote trinkoaren azpian.

—Begira honi! Begira! —zetazko txatala luzatuz—. Muturretan joko dut berarekin! Horixe joko dudala!

—Arrazoi duzu —esan zuen atsoak axolagabe.

—Baneukan ezetz esatea. Hobe izango zen. Ez ba! Politt hori hau, politt hori bestea —emakumeak faltsete-ahotsez esan zituen hitzok, baten bat irrigarri imitatuz karkailaka—; ziria sartu zidan, horixe sartu zidala ziria, baina ez dit, horratik, berriro sartuko! Bere ordaina izango du! Tuntun hutsa izango naiz bestela.

—Arrazoi duzu —atzerara ere atsoak.

—Hori ez! Hola ez! Ez, ez, ez eta ez! Dantzatu nahi duzula! Ba, dantzatu, maittea, ikusiko duzu dantzatzen zaren ala ez! Oraindik ez duzu ikusi zer den ona! Baina ikusiko duzu! Horixe ikusiko duzula! Politt hori? Politt hori, orduan? Tori, politt hori! Tori! Tori! Tori! Tori!

Horrela, garrasika, emakumeak zakarki zimurtu zuen zetazko txatala; lurrera bota, eta hainbat aldiz zapaldu zuen eskalapoin itxuraz zabar erraldoiekin.

«A ze sorgina», pentsatu zuen Andrék, sor eta lor oraindik.

Saio horren ondoren, emakumea isildu eta trankildu zen. Ilea eta zapia maneatu, mantaleko sake-

latik ateratako trapu ilun batekin muturra garbitu, eta arropa batzuk apailatzen hasi zen josteko makinaren gainean. Orduantxe erreparatu zien bisitariei.

—Hor al zeunden? —bota zion Lambaçari, oraindik amorrugatik dardaraka ari zen ahots batekin—. Ez duzu pagatzen eserita egoteagatik.

Atsoa, oihala lurretik jaso ondoren, hura garbitzeko eta lisatzeko ahaleginean ari zen.

Eseri bezain laster, oin-hots batzuk aditu ziren harrizko eskaileretan; atea zabaldtu, eta bi gizon sartu ziren, baratxe-baratxe. Lambaçarekin ezagun batekin bezala mintzatu ziren, eta André xeheki aztertu zuten. Lambaça bezalaxe kapela erantzi gabe, zutik geratu ziren mahaiaren ondoan, kriseiluaren argiak azpitik jotzen ziela aurpegian. Bata gizon-aurpegi ihar bat zen, albo batean orbain sakon batek zarratatua, eta bestea, aurpegi gazte bat, zurbila, tenkatua eta hotza.

Orbaindunak arretaz erreparatu zion atsoari, bera zetazko txatala garbitu eta lisatzen ari zen bitartean, eta atsoak beste emakumea seinalatu zion buruarekin. Josteko makinaren gainean arropak apailatzen segitzen zuen, baina nabari zen eginbeharragatik baino gehiago heldu berriei ez begiratzeagatik ari zela.

—Orduan? —galdetu zuen orbaindunak, neskari begira.

Atsoak besoa ukitu zion, eta sudurrera eraman zuen atzamarra. Gizonak ez zuen zirkinik egin.

—Kafea? —galdetu zuen, Lambaçarengana bihurtuz.

Buruarekin ezezkoa egin, eta Andréri begiratu zion, isilik. Bi gizonak eta atsoak ere elkarri begiratu zioten, eta beste emakumeak ere buelta hartu zuen hari begiratzeko. André larritu egin zen, larritu. Diruaren sobreak erre egiten zion sakelari.

—Zer moduz hemen gaindi? —galdetu zuen Lambaçak.

—Hola-hola —erantzun zuen orbaindunak.

Isilik egon ziren minutu batzuetan. Orbainduna aienatu egin zen ate batetik, eta handik gutxira itzuli zen. Txintik esan gabe. Lambaça zutitu eta atartera ir-ten zen, eta orbaindunak segitu zion, bere atzean atea itxiz.

André josteko makinako emakumearen mugimenduei begira geratu zen luze, oihal puskak itsumandoka arakutzen ari zela. Besteei so egin ziela-rik, betertzez begira zeuzkan biak, beltzuri eta fidagaitz; atsoa zeta lisatzen ari zen oraindik, eta besteak eskua kriseiluaren ondoan ipinita zeukan.

—Hau beroa —esan zuen Andrék, alkandoraren lepoa gehiago zabalduz.

Atsoak baietz egin zuen buruarekin, eta isilik se-
gitu zuten.

6

Gaztea gibealeko aldetik desagertu zen, ate okertu bati kirrinka eraginez. Atsoa mahaiaren gainean lokartu zen. Josteko makinaren ondoan, orain argi aldera begira, beste emakumea josten ari zen, isilik. Andrék ezin zion aurpegiari tankerarik eman. Buruzapiaren itzalpean lausoturik, argia lantzean behin baizik ez zitzaion islatzen begietan, eta berehala kukutzen ziren berriro. Suminak desitxuratutako emakume haren aurpegia zuen gogoan, eta, hala, ezinegona eragiten zion gaua halako marisorgin baten ondoan eman beharrak. Emakumearen eskuek baizik ez zuten txunditu. Esku leun eta argiak zituen, atzamar zalu eta trebeakoak joskintzarako.

Lambaça goizaldeko ordu batean itzuli zen orbaindunarekin batera. Azken horrek argiontzi bat ekarri zuen, eta, mahaian ipini eta estalkia kendu eta gero, piztu zuen. Argia zurbildu eta gorritu zen. Gizonaren aurpegiak, sugar kulunkariak behetik argiztaturik, kutsu fantastiko beldurgarri bat zeukan.

Andrék Lambaçari begiratu zion, azalpen eske.

—Lotara joan beharra daukagu —erantzun zion Lambaçak behako hari.

Ez zuen besterik esan, baina ahotsaren isekaireak zera eransten zuen: «Lasai, mutiko. Ez duzu zertan besterik jakin».

—Hemendik —esan zuen orbaindunak.

André atartera irten zen harekin.

—Geratuko al zara? —galdetu zion Lambaçari, mahaian bermaturik zigarreta bat astiro biltzen zuen bitartean.

—Geratu egingo naiz —nagusitasuna, gordinkeria eta trufa ezagun zitzaizkion ele bakan haietan.

Eskailerak jaitsi, eta, etxea inguraturik, lastozko eta simaurrezko zoru biguna zapalduz, beste eraikin batera joan ziren. Gauaren ilunean, esku-argiaren gar gorritzat apala zabuka zebilen Andréren aurrean, lurarren parean, airean misterioski esekita, dinbili-danbala erritmiko bare batean. Doi-doia argizatzen zituen gizonaren prakak eta botak, halako moldez non irudi baitzuen gizona gorputzik gabe mugitzen ari zela.

Esku-argia tanpez gelditu zen, paretari atxikita-koto zurezko eskailera-maila batzuk erakutsiz.

—Hemendik —esan zuen orbaindunak, eta eskailera igotzen hasi zen.

Eskailerak irekigune mehar batera eramaten zuen, etxearen goialdean. Gizona eta esku-argia sartu ziren, eta André, haien atzetik. Gizonak, buru-makur, buruaren parera altxatu zuen esku-argia, eta Andrék, buru-makur bera ere, aurrera egin zuen, teilatu apal makurreko gapirioak eta zekale-ahotza haztatuz. Zorua hondoratu egiten zen haien oinen azpian, eta lastoak eta lurrak karranka egiten zuten. Aurrerago, argi-itzaletan, lastoa bilduta zegoen mulkotan.

—Ondo lo egin —esan zuen gizonak.

Argi gorria haren hanken parera behehitu zen berriro, eta zoru arras joan zen, kulunka, ate-zangoa jo arte, non gelditu baitzen, lurrean pausaturik. Itzal lauso eta mugikor batek estali zuen, eta istant batez amatatu zen. Berehala, aurpegi bat erakutsi zuen, erdizka, zorutik hurbil beherantz aienatzen. Argia mugitzen hasi zen berriro, eta berehala desagertu ere bai aurpegiaren noranzko berean.

André bakarrik geratu zen ilunetan. Tarte labur bat behar izan zuen irekigunearen laukizuzen argi-goari antzemateko, eta, zoruan eta sabaian haztamuka ibiliz, haraino inguratu zen. Irekiguneak ez zeukan atarik edo ate-zangorik. Gaua baizik ez zen ixten haren aurrean, belar busti usainez. Ez zitzaion deusi tankerarik hartzen. Orbanak eta soslaiak berdin izan zitezkeen zuhaitzak zein etxeak. Suma zitekeen zomorro ezezagun baten hegoen burrunba erritmiko iheskaria.

Asaldaturik itzarri zen. Bazen norbait han bertan. Lasto zapalduaren hots etenek, beste hots labur asmaezin batzuek, mugimendu hautemangaitzek salatzen zuten ezezaguna zutik zegoela, itzarririk eta jardunean. Andrék sakelara eraman zuen eskua: sobrea han zegoen.

—Lambaça? –galdetu zuen.

Erantzunik ez. Tanpez agendu, eta hormaren kontra paratu zen.

—Ezer esaten ez baduzu, tiro egingo dut! –mehatxu egin zuen.

Ez zegoen armaturik, baina pentsatu gabe esan zuen.

—Neu, neu naiz –erantzun zuen Lambaçaren ahots suminduak, goitik etorrira eta zekale-ahotzezko teilatua motelduta-. Ez egin txorakeriarik.

Andrék mugimendua sumatu zuen lastoan. Gero, lehengo hots hautemangaitz berak. Azkenean, Lambaçaren botek krakada txikiz bete zuten zorua, eta dardara arin bat eragin zioten. Lipar batez, irekigunearen laukizuzena desagertu zen, eta, berehala, ahotsak aditu ziren kanpoan erasian.

7

Beste zerbaiten esperoan geratu zen luza-ro. Azkenean, argitzen hasia zuela, loak hartu zuen. Berriro itzarri zenean, hozmindurik eta xeheturik, eguzki-mendel batek urreztatzen zuen irekigunearen ertza. Diruaren sobrea sakelan zegoen. Hatua ere, paperekin, arroparekin eta bizarra egiteko makinarekin, hantxe zegoen, bere hartan. Kanpora begira, goizaldeko ihintzez emokaturiko aire hotz aratz batek hartu zuen berehala. Urrats bakan batzuetara, etxearen gibelala, harritzar lokabez egina. Larrain batean, lasto-meta zorrotz batzuk zerura begira. Etxetik harago, mendi larrutu leunak hedatzen ziren, eguzkiak zelaituak eta goxoki berdinduak. Lasaitasuna eta harmonia ziren nagusi.

Hatua bildu ondoren, zurezko eskailerak jaitsi, eta etxea inguratu zuen. Txakurra zaunkaka hasi zen jauzi batean.

—Douro? —Orain emakume-ahots fresko bat zen, atartetik zetorrena.

Txakurra baketu zen, eta gazteak gora egin zuen. Bezperan zetazko oihalaren karietara iskanbila

antolatua zuen andrea han zegoen, josteko makinaren ondoan, gau osoan handik mugitu ez balitz bezala. Ez Lambaça, ez orbainduna, ez gizon gaztea, ez atsoa ez zeuden han. Txakurra baketua zuen emakumeak harridurarik gabe eraman zuen barrura, eta eserarazi. Beste emakumeak ez zuen atzera begiratu.

—Nire laguna? —galdetu zuen Andrék.

—Etorriko da —erantzun zuen atzeko txokotik zetorren ahots fin busti batek.

Orduantxe erreparatu zion Andrék agureari, zeina bezperan ikusia ez baitzuen. Bere artean barre egin zuen, lagunkoi.

—Urrun dago herria —esan zuen agureak—. Nekaturik?

—Ondo egin dut lo —gezurretan Andrék.

Txakurra baketua zuen emakumeak ogia, txorizoa eta katilu bat kafe ekarri zizkion. Haren aurpegi indartsu eta hazpegi noblekotik, bi begi tolesgabek so egiten zioten jakin-minez.

—Hain gaztea! —esan zuen.

Agurea berriketan hasi zen, hitz eta pitz, arrai eta hizketarako gogoz. Hitz bakoitzarekin batera, batakatu zein besteak esanda, jesarlekuan bihurrika hasten zen; eskuak mugitzen zituen belaunen gainean, eta begitartea, izugarri mudakorra, alaitu, tristatu edo izutzen zitzaion, edo galdezka edo dudaz ageri zen, solaseko une bakoitzari berehala erantzunez. Agurearen berriketa bizitu egin zen, gero eta gehiago, mendialdeari eta herriari buruzko hasierako solasak bidea zelaitu beste asmorik izan ez balu bezala. Azkenean, hura bakarrik mintzatu zen.

—Hara joan nintzen bigarren aldia nire bizitzako egunik tristeenetako bat izan zen. Eskopeta harturik, eskailerako azken mailan nengoen eserita, hura garbi-

tzeko zerak antolatzen. Alaba nagusiak... orduan zazpi urte zituen... utzi ez, ordea. Jolastu nahi zuen, eta ez zidan uzten. Joan eta etorri zebilen, sorbaldan edo besoan jotzen, desafioka, eta barreka alde egiten zuen. «Oker hori, harrapatzen bahaut, garbitu egingo haut», esaten nion, eta eskua luzatzen nuen eskopeta aldera. Gelditu egiten zen pauso batzuetara; berriro etortzen zen otzan-otzan, txintxo-itxuran; etortzen zen astiro-astiro, eta zapla! «Zital hori, garbituko haut!», nik garrasika, eskua eskopetara eramanez. Hiru, lau, bost aldiz egin zuen. Gero, zera gertatu zen. Zoria, zori hutsa izan zen. Bene-benetan, jauna, deskargaturik utzia nuen arma. Baten batek ukitu zuen! Inork ez zuen bere burua kulpante agertu, baina baten batek ukitu zuen. Nolatan egingo nuen halakorik arma kargaturik egoenez gero. Baten batek ukitu zuen!

Eta agurearen bat-bateko aztoramenduak ederki erakusten zuen, hainbeste urte igarota ere, zeinen akusazio latzak egin zizkieten.

—Zoritxar galanta izan zen, eta gaur egun ere oroitze hutsarekin dardaraka hasten naiz. Eskopeta hartuaz batera: buuum! Eta neskatoa, nigandik hiru pausora, zutik, izu-ikara aurpegian, odola turrustaka botatzen hasi zen. Oihuka hara, oihuka hona, bata etorri, bestea etorri, eta ni hantxe, haurra besoetan, herrira lasterka. Nire seme Armandok bakarrik esaten zuen: «Ez da larria, aita. Dozena erdi bat perdigoi, asko jota. Ez al duzu ikusten ez dela larria?». Neskatoak ez zuen konortea galdu, egiatan, eta ttar-ttar ari zen, aizul! Nolatan hitz egin zezakeen hainbeste adin hartako haur batek, odola turrustaka zeriola? «Ez beldurtu, aitatzu. Ez beldurtu, ez da deus izango eta». Berak ninduen kontsolatzen; berak, gaixoa, aurpegitxoa, eskuak, hankak, soinekoa... dena gorri zeukala odoletan. «Ez

da izan zure errua, aita. Ez da izan zure errua», esaten zuen. «Ez izutu!». Tira ahala lasterka nindoan mendian barrena, haurra besoetan hartuta, baina oso nekatuta nengoen ordurako, eta hura konturatu: «Atsedean hartu, aita, oso nekatuta zaude eta», esaten zidan. Eta orduan atsedean hartu nuen; berriro garbitu nion odola aurpegitik eta eskuetatik, eta segituan jaiki nintzen. «Atsedean gehiago hartu», ekin zion, «atseden hartu». «Ez, haurtxo maitea», esan nion, «ez dinat nahi hi hiltzerik, alabatxo». Eta ba al dakizu, jauna, zer erantzun zidan haur hark? Zazpi urte, zazpi urteko haur batek! Ba, hauxe erantzun zidan: «Ez atsekabetu, aita. Hiltzen baldin banaiz, ez atsekabetu, inork ez dauka-eta nire premiarik». Orduan, hainbeste negar egin nuen, hainbeste, hainbeste, negar-anpuluka: gogoratze hutsarekin goibeldura berak hartzen nau oraindik.

Agurea isildu egin zen, begiak malkoz beterik, ezpainak dardaraka, hizketan segitu ezinik.

—Eta hil zen neskatoa? —galdetu zuen Andrék.

Agureak, bere onera etorrita, zintz egin zuen astiro, eta gero begiak xukatu paineluarekin, burua astinduaz batera.

—Begira —esan zuen—. Horixe da.

Eta kokots zorrotzarekin seinalatu zuen.

Andréri lehen ikusitik atsegin izan zitzaion txakurra baketua zuen emakumea, haren begi garbi abegikorrak eta haren karantza indartsu noblea. Agurrearen istorioa entzun eta gero, are gogokoago zuen. Arreta handiagoz begiratu zion, bada, haren umetako aurpegia berreraiki nahirik. Agureak atzeman zion behakoari, ordea, eta segituan zuzendu zuen okerra, barreka:

—Ez, hori ez! Bestea!

Bestea! «Sorgina» zen neskato goxo adoretsua!

Andréri, orduan, gogora etorri zitzaion ez suminak antzaldarazitako aurpegia, ezpada esku lerdan argi haiek, joskintzan ernai eta bizi mugitzen zirenak.

8

Lambaça, orbainduna eta beste gaztea eguarterean agertu ziren, izerditan eta mutu. Ez zuten esan nondik nora ibiliak ziren, eta inork ez zien galdetu. Jatorduan ere ia ez zuten murtik esan. Agureak bakarrik segitu zuen erasian, ahamenak oi zorroztruekin eta hortz bakar erraldoiarekin xehatzen zituen bitartean.

Bazkalostean alde egin zuten. Lambaçak mendi aldera jo zuen, zerrepelduta eta kopetilun. Kapela buuruan hondoraturik, lagunarengana biratu gabe, pausaje luze motelean zihoan, martxa berean beti, atsedetik hartu gabe. Orduak eta orduak.

Bidezidor eta bizilekuetatik bazter, mendialdea izurtu egiten zen, harritsu eta soildurik. Baziren bakanka, mazelen azpialdean edo tontorren bestaldean, alorren orban leunak. Batek daki nor eta nondik zetorren alorrok lantzera eremu elkor hartara. Arratsalde osoa eman zuten oinez, Lambaça aurrean, André atzean. Ez zuten inortxo ere ikusi. Eguzkiak bere argia isuriko ez balu airera eta gauzetara, airea hain garbia eta arina ez balitz, bakarleku hura eta isiltasun hura sobera hertsagarriak lirateke, ezin jasanezkoak.

Hala, bada, mendialdea intimitaterako prest ageri zen, fereka lasai eta konfiantzazko batekin.

Alabaina, eguzkia zeruertzeroa hurbiltzen hasi zelaririk, haranak ilunpetan deseginez, tontorrek eta haitz biribilek itzalak hedatu zituzten, eta airea hezetasunez eta hotzez kargatzen hasi zen; orduan, mendialdeak, nagusitasunez, handientza berri bat eskuratu zuen supituki, sarkinei mehatxuka begiraturaz bezala.

Ilunabarrean, sasitza gorak eta basa-olibondoek lakartutako erripa batean behera abiatu zen Lambaça. Hari segitzeko ahaleginetan, aldika desagertzen baitzen, André itsumandoka zihoan, estropezuka, erorka, zuhaixkekin tupust eginez eta haiei helduz, adar iharrek eta hostaje latzak harramazkaturik eta urraturik.

Gauak harrapatu zituen jaitsieran, eta, sasiartetik ateratzerako, dena ilun zegoen inguruan. Urrats urduri eta bizitan, Lambaçak, soilgune bat zeharkatu, eta beste malda bat igotzeari ekin zion. Andrék, unaturik, birikako minsorra gero eta zorrotzago, kostata segitu zion, maldan gora, beti maldan gora, apika ordu-bete, apika luzarago. Tarteka oinez, tarteka katamar, zabaltza batera iritsi ziren, non Lambaça arnasestuka gelditu baitzen, erne eta adi. Aurrean, behealdean, iluntasun beltza eta isiltasuna. Gorago, askoz gorago, mendien ertz beltzak taxaturik, zeru hotz izarratuzko zerrenda bat ageri zen, irribarrez babesa eskaintzen.

Ezagun zen Lambaça maiz izana zela toki hartan. Ilunetan, lurrean barrena aienatu zen. André, hari segika, haitzulo batean agertu zen, eta hantxe jesarri ziren, zoru bitxiki umel eta gogor hartan. Non edo han, ura tantaka ari zen, molde irregular batean, noizik noizera. Minutu luzeak igaro ziren; Lambaça erretzen hasi zen, esku-ahur bilduetan zigaretaren argia ostenduz kontu handiz.

—Orduan? —galdetu zuen Andrék, hatsa labur.

Lambaçak, erantzun aurretik, beste bi zupada egin zizkion zigarretari.

—Ikusiko dugu —esan zuen azkenean, astiro eta axolagabe.

—Adiskidea —esan zuen Andrék, ahotsa suminez dardaraka—, ez zait egokia iruditzen zure jarrera hori. Jakin nahi dut zertan den kontua. Ez nago prest...

—Ez asaldatu, ez asaldatu —eten zion Lambaçak destainaz.

—... ez nago prest itsumandoka ibiltzeko. Behin esan nizun, eta berriro diotsut. Garbi erantzun: noiz pasatuko gara bestaldera?

Lambaçak ez zuen berehalakoan erantzun. Zigarretaren argiak odolez tindatu zituen hura estaltzen zuten atzamarren junturak. Berriro, astiro, bakan eta apal, tanta bat jauzi zen.

—Apika, bihar —erantzun zuen azkenean. Etor-korra eta trufaria zen haren mintzoa.

—Adar-joka ari zara, baina gaizki atera zaizu —bota zion Andrék amorruez, berak ere ez zekiela hitzok zer esan nahi zuten.

Zigarrokina lurrean birrintzen ikusi zuen gero, itzaltzen. Lambaça aharrausika aditu zuen segituan.

—Hemen pasatuko al dugu gaua? —galdetu zuen.

—Primeran —erantzun zuen Lambaçak, aharrausika berriro.

André haserre, nekaturik eta goseak zegoen, hantxe, lurrean eserita eta haitzuloko hormaren kontra jarrita, praka hezetuak eta harriaren hotza sentituz, ez lokartzen saiatzen zen bitartean. Lantzean behin, Lambaça mugitzen aditzen zuen bertatik bertara, eta gero zigarreta bat tentu handiz pizten ikusten zuen, txoko batean poxpoloaren argia jakarekin ezkutatu.

Gero, tarteka, zigarroaren distira, esku-ahur bilduekin estalia. Lambaçak ez zuen lorik egiten, ezta antzik ere. Zer ibiliko zuen buruan? Zer ariko zen mamurtzen? Lapurreta egiteko ekarriko al zuen haraino? André gero eta gutxiago fidatzen zen gizon harengan. Aurreko gauean lastategian bezala, diruaren sobrea estutzen zuen sen hutsez. Halaxe joango ziren orduak, isilik, ilunetan, hozmindurik. Tantakada zalantzati bakanek misterio-kutsua eransten zioten gauari.

9

Zerbait arrotza sumaturik esnatu zen André, eta bertan-bertan ahuntz baten mutur jakingura ikusi zuen, haitzulo barrura patxadaz begira. Gero, zintzarri baten hots sotila aditu zuen, eta ahuntzaren ondoan antxume bat agertu zen, eguzkiak haren soslaia marrazturik.

Haitzuloko horman bermaturik, Lambaça lo zegoen, besoak antxumaturik, kapela beltzak aurpegia tapaturik. André esnatu zen.

—Bonito! —oihu egin zuen Lambaça.

Beste zintzarri-hots batzuk aditu ziren kanpoan, barreiatuak eta zalantzatiak, eta beste ahuntz bat plantatu zen haitzuloaren sarreran, barrura jakin-minez begira, bestea bezala.

—Kontuz, ez daitezela sar! —erantsi zuen—. Urrutitik ikusten badute zer gertatzen ari den, berehala jakingo dute baten bat dabilela hemen.

Lehen aldia zen Lambaça azalpen argi eta baleko bat ematen zuela gertakari bati buruz. Lehen aldia zen orobat Andrék kezka eta urduritasuna igartzen

zuela haren ahotsean. Nolanahi ere, ohartu zen egoera ez zela ona.

—Geratuko al gara? —galdetu zuen.

Irudi zuen bestea damaturik zegoela gehiegi hitz egina zelako, ahultasun-seinale bat balitz bezala. Ezer erantzun gabe, zigarreta bat biltzeari ekin zion, isilik. Tarteka-marteka, haitzuloaren kanpoaldera begiratzen zuen, kapelaren hegal beltzaren azpitik. Bi ahuntzek hantxe segitzen zuten, eta, hurbileko txintzarri-hotsak zirela-eta, bistan zen beste lagun batzuk zituztela ondoan. Andrék lotokiko zoruari erreparatu zion orduan: baziren oliba ttipi ilun batzuk hezetasunak deseginak. Zergatik bildu nahi zuten hara ahuntzek, baina, ordurako egun-argia bazen eta gaua kanpoan pasatua bazuten? Interesa piztu zion misterio hark. Beste bi ahuntz azaldu ziren, jakingurazko aurpegiera berarekin barrura begira, eta hantxe geratu ziren besteekin batera.

—Bonito, dudarik ez —errepikatu zuen Lambaçak—. Alde egin beharra daukagu.

Kanpoan, eguzkiak, ordurako goian, ederki jotzen zuen haitzuloaren hegala. Uste bezalaxe, dozenaka ahuntz zebiltzan inguru guztian, harritu antzean. Han-hemenka antxume batzuk salto eta brinko ari ziren. Gizonak azaltzean, ahuntz taldea, eguzkitan ñirñirka, maldan behera abiatu zen arrapaladan, zalaparta batean, dena zintzarri-hots eta gorputz leun eta sendoen arteko topeka. Lambaçak, eskua begien gainean paraturik, geldiro eta artoski miatu zuen gailurrezko mugaldea. Gero, patxada itxuratiz, gorputza zurrun eta zangoak okerturik, eskua gerrikoan errebolberra ferekatuz jakaren hegalaren azpian, ahuntzei segitu zien maldan behera, ibilera mutiriz, beste mendi-mazelatik begira egon zitekeen edozein etsai ikusezini erronka joz bezala.

Haranaren zolara iritsi ondoren, zeina landare herrestari beratzez estalita baitzegoen, bezpera gauean halako nekez jaitsitako basa-olibondoen eta sasitzaren mendi-hegala igotzeari ekin zioten. Jaistea zaila izan bazen, igotzea akrobatentzako kontua. Eguerdian, sasi-tzazko beste erripa bat gainditzean, arropa eta haragia urraturik, Lambaçaren lorratza galdu zuen Andrék, eta, leher-leher eginik, izerdi-patsetan, etzan egin zen, arnasestuka.

Halaxe geratu zen, begiak itxita, mugitu eta jaiki ezinik, harik eta txakur nabarra etorri zitzaion arte. Saitzan ahalik eta erosoan kuzkurturik, lo sakon batek hartu zuen. Itzarri zenean, egunsentiko argi lausoan, Lambaça zeukan ondoan, kukubilko. Berehala, mintzatu ziren lehenbiziko egunean zakarki bota zion esaldi bera bota zion modu txarrean:

—Gauza hauek gizonen kontuak dira, adiskidea.

Nahikoa pasatua zuen, eta ederki zekien hori besteak. Alferreko ibilaldiak egitera behartua zuen, furgonetaren atzetik korrika egitera, lo gutxiko gauak pasatzera, baraualdi luzeak egitera. Ageriko arrazoirik eta onurarik gabe. Noragabe eta gaiztakeria hutsa zen dena. André, tanpez eseri, eta bil-bil egin zen, burua aurrerantz, desafioka.

—Ez al dugu jan behar gaur? –galdetu zuen takar.

Lambaçaren begi txiki beltzek ñir-ñir egin zuten, ironiaz. Esku sakelatik astiro atera, eta luzatu egin zion. Esku-ahurrak zenbait hur eskaini zizkion, umilak, gaztaina-kolorekoak.

—Halako adar-jotzerik niri! –garrasika Andrék—. Zertan ari zara? Jota zaude, ala?

Lambaçak, sorbalda uzurtu, eta haserre hartu zuen arnasa. Errebolber zilarkara gerrikitik atera, kanoiarekin lurra harramazkatu harri bat aurkitu

arte, eta, hurrak kulatarekin puskaturik, emeki jaten hasi zen. Amaitu zuenean, flasko bat pattar atera, eta Andréri eskaini zion. Hark errefusatu, eta orduan geldiro edan zuen; azkenik, mihia klaskatu, flaskoa gorde, ahalik eta erosoan etzan, eta aurpegia estali zuen Kapelarekin.

André erabat itzarrik zegoen ordurako, eta premia latza zuen egoeraz hitz egiteko.

—Atzo eguerditik ez dugu deus jan. Hain bide luzea baguenen, nolatan ez genuen jatekorik hartu etxe hartan? Eta, gaua hemen pasatzerik bazegoen eta hona bueltatu bagara, zergatik galdu hainbeste ordu ahuntzen haitzulora joateko? Zer egin dugu azken hogeita lau orduetan haran honetan? Ba al dakizu, bederen, zertan ari zaren?

Lambaçak, kapela beltza begien gaineratik behin ere kendu gabe, aharrausi egin zuen ozen, eta kuzkurtu egin zen sasitzan.

—Ez dakit, ezta jakin nahi ere, zertan joan zinen etxe hartara. Gauza onik ez, seguru. Muga pasatzen lagunduko zenidala agindu zenidan, ordea, eta orain arte batere ez. Askotan galdetu dizut, eta erantzuna zor didazu. Noiz pasatuko gara bestaldera?

Besteak bere hartan segitu zuen. Ez zegoen lo, berriro aharrausi egin baitzuen.

Lambaçaren patxadak eta isiltasunak areago sutu zuten André. Eta ahots lehor eta zorrotz batez garrausi egin zuen:

—Entzun al duzu? Erantzun! Horretarako pagatzen dizut eta!

Orduantxe agondu zen Lambaça, aurpegia erakutsiz. Ilunpetan, begiak ikusi zizkion gaiztakeriaz sastakatzen. Ahotsa, haatik, lasai eta destainaz atera zitzaion, beti bezala.

—Ergela zara, ala? Hitz egin apalago.

—Hitz egin apalago, hitz egin apalago, ez dakizu besterik esaten. Oker zaude nirekin. Ziria sartu didazula uste baduzu, gaizki atera zaizkizu kontuak. Morroi bat garbitzeagatik nago hemen. Ez dakit beste bat ez ote dudan garbitu beharko.

—Hitz egin apalago. Ez al duzu aditu?!

—Noiz pasatuko gara bestaldera? –temati Andrék, gogoz kontra ahotsa bridatuz– Noiz pasatuko gara? Erantzun! Oraintxe!

—Bihar –erantzun zion Lambaçak, bestela bezala. Eta, Andréren mehatxuei ez ikusiarena eginez, ahalik eta erosoan etzan zen sasitzan berriro; kapela berriro aurpegi gainean jarri, eta, handik gutxira, oraindik erabat ilundu aurretik, zurrungaka ari zen.

Andrék harengana jo eta zaplastada batez iratzartzekoa egin zuen. Hura ere bere tokian kuzkurtu zen azkenean, ordea. Ez zen handik denbora askora arte baretu eta lokartu, goizaldean sasiartetik izarrak begira zeuzkala eta urreko hotzak gorputza zeharkatzen ziola.

10

Lambaça esnatu zen. Goiz osoa ibilian eman zuten, gora eta behera, alderrai. Gosekilik, txikiturik, Andréri kosta egiten zitzaion besteari segitzea. Ez zuten hitzik egiten.

Eguerdi aldera, muino bat igarota, behealdean, urrats gutxira, etxe lander ilun bat azaldu zitzaien, beste guztiak bezalakoxea: harri lehorrezko paretak, ahotzezko teilatua, ukuilua behean eta bizitza goian, kristalik gabeko bi leiho baldres. Zidor bat hartu, etxea inguratu eta haren aurrealdean geratu ziren. Atartean, neska bat zegoen haurtxo bat loarazten. Bakarleku hartan egonik ere, harridurarik gabe begiratu zien.

Lambaçak ez zuen diosalik egin. Galdetu bakarrik:

—Ba al da beste inor?

Neskak, irri murriz bat egin, eta burua ezezkoan mugitu zuen. Lambaçak, patxadatsu, ingurura begiratu zuen, eta jatekorik ba ote zegoen galdetu zuen.

—Paratu hor —erantzun zuen neskak ahots apal abegikor batekin, irri murriz bat berriro eginez eta Andréri jakinguraz begiratu.

Jatekoaz hizketan entzunda, bihotza altxatu zitzaion mutilari.

Lambaçaren begi txiki beltz urdurietan eta bi-botearen erratzaren azpiko ezpain mehe estutueta nabari zitzaion ez zegoela konforme. Luzaro eta zailantzan begiratu zuen mendi aldera berriro. Zerbait estrainioa adierazten zuten haren duda-mudak eta neskaren axolagabeziak, zeinak haurra paseatzen eta kulunkatzen jarraitzen baitzuen.

Atartearen gerizpean ongi ikusi ez arren, neska-reen eiteak ederra zirudien, eta, zapi ilun landerraren azpian, hazpegi finetan, irribarre aratz lasai bat ageritzen distiratsu. Sobera zintzoa apika.

—Aizan –esan zuen azkenean Lambaçak–, deitu Rosari, eta ekartzan ardoa.

Andréri zentzuzkoa begitandu zitzaion galdea, zeren neskak, bakarrik egonda, ez baitzituen bi gizon hartuko etxean.

—Aditu al dun, Zulmira? –berriro Lambaçak–. Ala norbaiten esperoan hago?

—Ez –erantzun zuen neskak, ahots ahul atsegin berarekin. Isilune baten ondoren, haurra kulunkatzeari utzi gabe, zera erantsi zuen:

—Geratuko al zarete?

Andrék, erantzunaren zain lagunari begiratzearan, aurpegiera berri kezagarri bat aurkitu zuen. Burua baiezkoan astinduz, haren begi txiki beltzek makurkeriaz begiratu zioten neskari, aho erdi irekiak hortz-hagin oldarkorrak bistan uzten zizkion bitartean. Zerbait oiesa, bortitza eta zitala sumatzen zitzaion begitartean.

—Ez dakit Rosak etortzerik izango duen –esan zuen neskak astiro.

—Eta geratuko bagina –galdetu zuen Lambaçak apal–, beldur hintzateke?

Samindura ezin azalduzko bat eta susmo txarren batzuk zekarzkion egoerak Andréri. Argi ikusten zuen lagunari, neska etxean bakarrik zegoela ikusita, okerkeriaren bat bururatuko zitzaiola. Edozertarako gertu zegoen gizon hura. Konplizitaterik esperoko al zuen berarengandik?

Etzetik pixka bat aldenduz, dei egin zion. Hurbildu egin zen.

—Ostatu ematen al dute?

Lambaça isilik geratu zen, begiak finko eta lauso. Ezpainak mugitu zituen, hitz egin nahian bezala, baina ez zuen deus esan. Sorbaldak uzkurto, bizkarra eman, eta etxe aldera itzuli zen.

Gazteak hiru pauso egin zituen lasterka, eta heldu egin zion.

—Zer darabilzu, ba? –galdetu zuen gero eta aztoratuago.

Lambaçak berriro uzkurto zituen sorbaldak, baina orduan ahots lasaiz erantzun zion, ahotsa itxuraz etorkor baina egiaz izozturik jalgitzen zitzaiola ezpain itxien artetik.

—Lasai, adiskidea, lasai. Ez da garestia izango. Zaude lasai.

Eta etxera hurbildu zen.

—Ez dakit Rosak etortzerik izango duen –errepikatu zuen neskak, haurtxoa kulunkatuz betiere.

Andrék berriro erreparatu zion haren irribarre lasai garbiari, eta gaztea asaldatu egin zen begirada temati harekin. Zerbait gogorarazten zion, zerbait urrun eta samingarria, baina zer, zer?

—Hoa, eta jatekoa ekarri –esan zuen Lambaçak

Neskak umea gozatu zuen; berriro begiratu zion Andréri, eta etxera sartu zen.

—Bakarrik bizi al da? —galdetu zuen Andrék.

Lambaçak irri egin zuen, mespretxuz eta gaizta-keriaz, hortzak berriro erakutsiz bibotearen erratzaren azpian. Ez zuen erantzun.

—Ni ez naiz geratuko —esan zuen Andrék, deblauki eta pentsatu gabe.

—Ba, ez geratu —esan zuen besteak hotz eta motz.

Andrék besotik heldu zion. Suminagatik hain apal atera zitzaizkion hitzak, ia beldur izan baitzen besteak adituko ote zituen.

—Ez ni ez zu ez gara geratuko!

Besoa askatu gabe, Lambaçak berriro irri egin zuen mespretxuz, bestea begiekin aiherkunderaz fusilatuz batera. Gaztea beldur izan zen besteak labana sartuko ote zion, traizioz, azpitik.

—Nahikoa —esan zuen Lambaçak ahots isekariz, eta, orduan bai, orduan besoa askatu zuen, astiro eta aise, bere muskulu tenkatuen sendotasuna sentiara-ziz, eta, etxera joan, atartera igo, eta barrura sartu zen.

André bakarrik geratu zen, zer egin ez zekiela, eta hantxe egon zen luzaro esperoan. Mendialde arrotz batean zegoen, mugaren inguruan, nora gabe, engainaturik eta goseak; arriskuak larriagotzen hasiak ziren. Lambaça ezagutu zuenetik bertatik jakin zuen dena gaizki aterako zela. Behin baino gehiagotan ikusia zuen bere burua galduta. Orain zer egin erabaki ezinik zegoen. Amore eman beharko al zuen berriro, eta atartera igo eta atea jo? Zer arrapostu izango zuen? Ala hitz gordinekin irtenarazi beharko zuen handik, bere konpromisoa eta erantzukizuna gogoraraziz? Tamalez ez zeukan armarik.

Bestea itzuli zen, haatik. Ordubete luze egin zuen barruan, baina itzuli egin zen. Eskailerak jaitsi zituen, hanka sendoak pixka bat okertuz, oraindik jaten ari zela, ahoa eta bibotea eskugainarekin garbituz. Gaztea harri batean jarrita ikusi zuelarik, mespretxuz begiratu zion. Ondotxo zekien zain egongo zela. Bete-tasuna eta segurtasuna zerizkion gorputz osotik.

Eskuarekin keinu txiki bat egin, eta bideari lotu zitzaion, jakinik gazteak segituko ziola.

Aldendu aurretik, Andrék atarte aldera begiratu zuen. Neskaren burua ikusi zuen atetik kirika, itzale-tan. Kalparrak atontzen ari zen zapiaren azpian, eta irririk gabe so egiten zien, adi eta jakinguraz.

Lambaçak tarte handia aterea zion, urrats bi-zitan, eta Andrék ia laster egin behar izan zuen hura harrapatzeko.

11

Mendirik mendi ibili ziren arratsalde osoan. Lambaçã presarik gabe zebilen, geldialdi luzeak eginez. Aldarte onean ageri zen, arestiko pasadizoa barkatu nahian bezala. Irudi zuen bat-batean lagunarenganako interesa piztua zitzaiola, eta, ondoz ondo zebiltzala, berari zeharka begira harrapatu zuen batean baino gehiagotan.

Halako toki batean, ur-xirripa baten ondoan, Lambaçãk errebolber zilarkara handia atera zuen sakelatik, eta, deskargatu ondoren, kolpekaria eta morroiloa aztertzen hasi zen. Zigarretaren mutur hori bustia beheko ezpainari itsatsirik, ke-ahokada geldo eta sakonak botatzen zituen ibili ahala.

Lambaçãk bezpera gauean esana zuen egun hartan pasatuko zirela bestaldera. Horregatik ariko al zen arma egiaztatzen? Kontua berretsi nahian, berriro atera zuen gaia hizpidera. Erantzuna bezperan baino lausoagoa izan zen.

—Apika, balaz josten ez bagaituzte —eta trufazko behako labur bat bota zion gazteari.

«Pentsatuko du beldurrez nagoela? Ala zorutzen ari zaio?», pentsatu zuen Andrék. Uste zuen gorroto ziola eta aldiro espero zuela berarengan beldurra edo duda-muda sumatzea. Uste zuen, orobat, halakorik sumatuz gero bertan behera utziko zuela, eta, halakorik sumatu ezean eta Andrék bere ausardia agerian jarriz gero (eta horrexegatik asmatua zuen baten bat garbitua zuelako kontua), bazen arriskua bidaiaria norgehiagoka horren ondorioz ezbehar bortxazko edo dramatiko batean amaitzeko. Damu zen adiskideen iritziari men eginda armarik gabe etorria zelako. Lambaçak ez zekien, ordea, eta Andréri, hura errebolbera egiaztatzen ikusita, armaren falta ernetu zitzaion barruan are biziago.

—Gehiago gustatzen zait nire pistola –esan zuen jakako sakela haztatuz.

—Errebolber batek bi pistolak baino gehiago bali du –esan zuen Lambaçak–. Pistolak trabatu egiten dira. Errebolberak ez du egundo huts egiten.

Hala frogatzeko-edo, gaztearengana destatu zuen arma, eta behin, bitan, hirutan sakatu zuen katua. Behin, bitan, hirutan, kolpekariak eztanda sor hutsal bat eragin zuen erortzean. Agurearen eta alabaren istorioaz oroiturik, Andrék dar-dar egin zuen. Horixe nahi zuen Lambaçak, ziur aski, barreka hasi baitzen.

—Atera pistola hori –bota zion.

Ez zuen inondik ere aitortu behar armarik ez zeukala, pentsatu zuen Andrék. Galdera batekin arrapostu eman zion.

—Ez al du gu ezer jan behar gaur? –Indarge, halako estutu larri bat nabari zuen urdailean.

Lambaçaren begirada isekaz betea etorri zen.

—Adiskidea, trena huts eginez gero, hurrengoaren zain geratu behar.

Hura neskaren etxean zerbait janda zegoen. Andrék ere jan ahalko zuen, nahi izan balu. Goseak eta nekeak pasaturik, gazteak gogoan zerabilen arinkeriaz eta burugabe jokatu ote zuen. Zergatik deabru hartua zion hain susmo txarra etxe hari? Inozokeria eta ume-keria galanta izan zen. Baziren 48 ordu ez zuela deus jaten, eta, hala segituz gero, zitekeena zen hantxe geratzea, sasiarte hartan, otso eta miruen bazkatarako. Besteak pentsamendua igarri zion, nonbait.

—Ez duzu jan, baina jan egingo duzu. Lasai egon zaitetz, gaur afari ederra egin eta ohe bigun epelean lo egingo duzu eta.

Eta berriro bere irri makurra erakutsi zuen, trufari eta anker. Irudi zuen laguna nahasteko deliberoko hartua zegoela.

—Bigun eta epela —errepikatu zuen.

Handik pixka batera, errebolberra ordurako kargatua zuela, berriro ekin zion Lambaçak:

—Orduan ez didazu erakutsiko pistola?

—Adiskidea —erantzun zuen bestearen tonua imitatuz—, armak ez daude jostatzeke eginak. Tiro egiteko ateratzen ditut bakarrik.

Lmbaçak errebolberra gorde zuen orduan, emeki-emeki.

Iluntzen hasia zuen bideari berriz lotu zitzaizkionerako. Mendiak, mendiak eta mendiak, gailur biribil beratzekoak, haitz leun hauskarak eta landaredi bakan baxua. Mendilerroak hain bakartuak eta hain berdinak ziren, Andréri iruditzen baitzitzaion dagoeneko igaroak zirela ilunkera hartan zeharkatzen ari ziren zeruertzik gabeko goi-ordoki hartatik. Harribola simetriko eta lasai berak, lili more berak; pentsa zitekeen mendi berak, hura ere biribildua eta barea, so egiten ziela urrutitik bidelagun. Lambaça astiro zihoan.

—Gaur ere aire zabalean egingo dugu lo? —galde-
tu zuen Andrék.

—Egon, egon pixka batean, adiskidea. Dagoene-
ko gertu gaude eta.

Ahotsaren tonua arrotza zitzaion, berria: irudi
zuen aldi berean esan nahi zuela oraingoan gezurretan
ari zela baina ez zela gezurretan ari.

Halaxe zen, izan ere. Ehunka metro aurrera-
go, beheraxeago, ordurako ilunduta zegoela, herrixka
baten orban lauso iluna ikusi zuten. Malkar piko bat
estropezuka jaitsi, bizpahiru etxolaren gainetik igaro,
itzuli bat egin, pendizaren parean beste zidor bat gora
hartu, eta, handik dozena bat urratsera, tanpez, etxe
bakartu bat agertu zitzaien.

Lambaçak txistu jo zuen, apal, hortzen artetik.
Goian, atartean, irudi bat agertu zen ateko laukizuzen
gaizki argizatuan. Eskailerak igo zituzten bi gizonak.

Etxera sartu ziren. Emakume batek, haiei biz-
karra emanik, petroliozko argiontzi bat paratu zuen
apalategi gora batean, eta metxa luzatu argia bizitze-
ko. Buelta hartu zuenean, André sor eta lor geratu zen.
Haren buruzapi landerraren azpitik, zeina sorbalda al-
dera eroria baitzeukan, Zulmira begira zeukaten bere
irribarre aratz lasaiarekin.

Lambaçak, azalpenik eman gabe, lehengo etxe-
ra ekarria zuen, Andrék geratzeari uko egina zion
haretxetara.

12

Hasieratik bertatik, Lambaçak argi eta garbi utzi nahi izan zuen zein zen egoera. Atea itxi eta banku bat mahai aldera aise bultzatu ondoren, neskari bizkarrez heldu zion, keinu irrigarri basa batekin, eta, buruzapia bere aurpegiarekin bazterturik, musuka hasi zitzaion saman, karrez. Neskak ez zuen zirkinik egin, ezta harridurarik adierazi ere. Lambaçak musu eman bitartean, Andréri begiraten zion, geldi eta otzan.

Hara, maitalea du! Txunditu egin zen, aurrena. Gero, baketu. Hobe hori eta ez indarkeria-erakustaldirik ikusi behar izatea.

Mahaira eseri ziren biak, bata bestearen aurrean, eta neska ere eseri zen, ortozik eta trauskil jantzita, botila bat eta hiru edontzi ekarri eta gero, bere bankua Andrérenetik hurbilago jarriz, nahita itxura batean. Hala, hurragotik, are ederragoa zen. Haren aurpegi ihar finean, aho koskatsu zurbilak irribarre egiten zuen aratz, eta begiek, betile luzezko orladunak berak, amultsu begiraten zioten gazteari bekain sarrien azpitik. Zapia berriro eroriko zitzaion sorbaldara, ile beltz trinko izurra agerian utziz belarrondoan, xerlotan bil-

durik. Nolatan izan zitekeen halako neska bat, hain gaztea eta hain ederra, gizon haren maitalea?

—Rosa ez da etortzekoa —esan zuen bere ahots apal abegikorrarekin. Eta elkarri begiratu zioten.

Lambaçak jatekoa eskatu zuen, eta, neska bazer batera zihoan bitartean, altxatu, jaka erantzi eta kamaina baten gainean utzi zuen. Mahaira itzuli aurretik, neskarengana inguratu zen, eta berriro besarkatu zuen, zantar.

Neskak emaro uxatu zuen.

—Gizon arraioa! Egon pixka batean!

Eta gazteari begiratu zion berriro, betertzez. Bazen kontraste asmaezin bat haren etorkortasunaren eta hazpegien eta irribarrearen araztasunaren artean. Lambaça mahaira itzuli zenean, neskak zapia txukundu zuen; Andréri zuzen-zuzen begiratu, eta beso airosak astiro altxatu zituen, bere bularralde perfektuari erreparatzeko astia eman nahian bezala. Gaztea goibel zegoen, zergatik ez zekiela.

Azkenean, zekale-ogi erraldoi bat eta zartagin bete arrautza eta txorizo ekarri zituen mahaira. Hirurek jan zuten handik. Mahukak goititurik eta kapela beltza garondo aldera eramanez, Lambaça pozik eta eroso ageri zen, bere etxean balego bezala. Ogi-xerra erraldoiak mozten zituen labanarekin zeharretara, eta haiekin eta zartaginekoarekin mukuru betetzen zuen ahoa. Basoak bata bestearen atzetik edaten zituen, zoro baten pare. Andrék ere gogotsu jaten zuen, aspalditik jan zaharrean baitzegoen, baina deseroso, egoera hura berehala akitzeko irrikaz. Neskak mokaduak hartzen zituen fin eta herabe, eta lantzean behin baizik ez zituen hurrupa txikiak egiten, edontzia ozta-ozta ukituz bere ezpain heze arrosa argiekin. Jaten ari zirela, Andrék behin baino gehiagotan harrapatu zuen Lambaça besoa mahai azpi-

ra sartzen; aldian behin neskak beste horrenbeste egiten zuen, eta André ohartzen zen gorputza lotsagabekeriatik libratzeko eta arropa txukuntzeko egiten zuela, presarik eta suminik gabe betiere. Gero eta gehiago tristatzen zuen pasibotasun hark, neskaren eite osoaren fineziarekin halako kontraste handia egiten baitzuen. Gazteari txitean-pitean begiratzen zion, haren gaztetasunagatik harriturik apika. Behin baino gehiagotan, Lambaçaren fereketatik libratu, Andréren aldera bultzatu zituen poxi bat bankua eta bere gorputza, gazteari amultsu eta eztiki begira. Hain zen nabaria neskaren aldekotasuna, André kezkatzen hasi baitzen Lambaça suminduko ote zen. Baina ez. Haren begi txiki beltzetan ez zen igartzen inongo gorroto edo ezinikusirik. Arraitasun lotsagabe bat besterik ez.

Haurraren negarrak eten zuen afaria. Neska, altxatu, eta ate txiki ilun batetik aienatu zen, baina, handik gutxira, berriro azaldu zen haurra besotan harturik.

—Nor da aita? —galdetu zion Andrék Lambaçari ahopean.

Lambaçak, ordurako zopatu samarrik, barre-zantzo metaliko bat egin zuen, lagunari min eman ziona. Neska konturatu zen. Gorritu egin zen, eta lehen aldiz ahalke eta aztoraturik agertu zen. Galdera ergela izan zen benetan.

Andrék xalaren azpitik ikusi zuen nola neskak, gizonen ondoan eserita eta umea altzoan harturik, bilatzen eta askatzen zuen bularra, eta, haurraren hondarreko negarraldien ondoren, titipunta aurkitzean haren ahotxoak egin zuen urruma gosetia aditu zuen. Neskak xalaren barrualdera begiratu zuen, eta betiko irribarre lasai aratza agertu zitzaion aurpegian ñirñirka.

Lambaçak, begiak pizturik, eskua ezarri zion poliki sorbaldan, laztanka. Gero, zakar, xala baztertu zion. Neska berehalakoan tapatu zen.

—Astoa! —garrasi egin zuen amorraturik, eta jai-ki, eta bankua Andréren ondo-ondora eraman zuen, nabarmenki.

Lambaçak, ahoa erdi irekirik eta jakiz bete-beterik zeukala, gaiztoz begiratu zion gazteari. Mutila ohartu zen pixkana-pixkana baina ezinbestez hurbil-tzen ari zela bortxakeriarako tenorea.

—Zer denbora du haurrak?

—Sei hilabete —erantzun zuen neskak xamur, behera begira, xalaren eta buruzapiaren itzalpean. Gero, burua altxatu, bankua Andréren aldera area-go hurbildu haren ondo-ondoan paratzeraino, eta, Lambaçari ia bizkarra emanik, gazteari begiratu zion luzaroan, begiekin hark ulertu ez zuen zerbait esan nahian bezala, eta deblauki, mahai gainean eta agerigerian, bere esku beltzarana ipini zuen gaztearenaren gainean. Haren eskua estutu, eta halaxe utzi zuen.

Andrék pentsatu zuen labankada- eta tiro-eraun-tsi baterako prest jaikiko zela Lambaça. Okerragoa izan zen, hori baino askoz okerragoa. Haren ahotik esaldi bakarra jalgi zen, neskari zuzendua, baina a ze esaldia!

—Nahi baduzu, zoaz lehenbizi berarekin, baina gaua nirekin pasatuko duzu.

Oinaztura batek nola, esaldiak argitu egin zuen dena. Eguerdian etxe hartara iritsiz geroztik gazteak sentitutako nahasmenean, larrimin, herstura hura guztia. Neska Lambaçaren maitalea ere ez zen. Prostituta bat baizik ez zen. Han, herrixka koxkor batetik ehun bat metrora, mendiarte hartan, desertuan.

13

Bat-batean gogoia etorri zitzaion etxe hartatik alde egiteko eta mendiko aire garbira atera eta han galtzeko. Gerora, ezin oroituko zen zehazki zer esan zuen. Bakarrik oroitzen zen argi utzi zuela ez zuela deus nahi neskarekin eta, jarrera horren oinarrian sumina, sinpatia eta errukia zeuden arren, neskak mespretxutzat hartu zuela. Oroitzen zen neskak ez zuela Lambaçarekin joan nahi izan logelara, atzeko ate txikiaren ostera, André kamainako burusian bildu zen arte, txokoan. Oroitzen zen neskak orduz geroztik ez ziola irribarre gehiagorik egin eta ez ziola aurpegira begiratu ere. Eta gerora oroituko zen nola, dagoeneko ohean eta argia itzalirik, aditu zituen paretaren bestaldeko ohearen kirrinka gorrotagariak edo Lambaçaren arnasaldi estu asalatuak.

Burusian bil-bil eginik, suminak eta tristurak ito zuten. Halakorik! Nolatan? Zer tragedia kukutzen zen laborari-etxetxo hartan, tokitako herrixka batetik ehun metrora, mendialdean galdurik? Nolatan jazo zitekeen halakorik han? Neska laborari bat, hain gaztea, hain ederra, amodioa saltzeko ez baizik eta maitatua izateko jaioa? Geroago, askoz geroago, Andrék haren

irribarre lasai aratza gogoratuko zuen, eta haren begi betile beltzez inguratuen fereka guria sentituko, bekain luze nabarmenen azpitik berari so. Beharbada, bere hemezortzi urteetako suhartasunarekin, maiteminduta egongo zen. Beharbada. Kontua da izugarri artega eta aztoraturik zegoela, norbait maitea ebatsi eta laidoztatu baliote bezala.

Beharrik Lambaça berehala lokartu zen. Isiltasuna nagusitu zen etxean; orduan, gaztea, baretu, eta bere bizitzaz eta mendialde hartan egotearen zergati-koaz oroitu zen. Adoreberritu zen. Azkenean, ahalegin horretan bizi zen: bere apurra beste milioika apurri gehituta, bere aberrian halako zorigaiztoko neskarik izan ez zedin. Gogoeta horri lotu zitzaion etsi-etsian, non zegoen ahaztu nahirik, batez ere Zulmira ahaztu nahirik, haren irribarrea eta haren begiak, eta haurra, eta Lambaça, eta paretaz bestaldean zegoen ohea. Nekearen nekez, loak hartu zuen azkenean.

Gelako argitasunarekin itzartu zen. Zulmira ohearen oinetan zegoen, semeari bularra ematen. Buruzapia jantzi gabe, adats beltza barreiatzen zitzaion sorbalden gainean. Bular beltzaran, zabal eta perfektua eskaintzen zion argiari. Andrék lipar batez begiratu zion, betazal pisuen azpitik, eta segituan lokartu zen. Berriro itzartu zen handik denbora gutxira. Zulmirak semea altzoan zeukan oraindik, eta gaztearen aldera begira zegoen, goibel eta atezuan. Ikusi zuen neska altxatzen, semea otzara batean uzten, tapatzen eta beraren ohera zalantzati hurbiltzen eta oinak burusian ondo biltzen, semea balu bezalaxe. Zutik egon zen minutu batzuetan, eta, gero, mahaian esertzera joan zen; argia apaldu zuen argiantz sotil bat uzteraino, eta, besoak mahai gainean gurutzaturik, han paratu zuen burua, zeina zenbait aldiz astindu baitzuen atsekabez.

Goizeko bostak ziren, eta Lambaçak esana zuen goizaldean abiatuko zirela. Andrék zigarreta bat bildu zuen. Kea gelan zabaltzean, neskak burua altxatu zuen; gaztearengana zakarki biratu, eta berehala itzuli zen lehengo posiziora. Nabari zen guztiz itzarririk zegoela. Andrék, jaiki, eta argiontziaren metxa luzatu zuen. Argiak dar-dar zeharkatu zuen gela txikia. Neskak ez zuen zirkinik egin. Lambaçã ez ukitzearren gau oso han mahaiaren gainean etzanda pasatua zuela pentsatzeak, bakardade eta babesgabetasun hark, gogoa piztuzion mutilari mahai gaineko buruari laztan xoil bat egiteko. Ez zuen halakorik egin, eta bizi guztian dolutuko zitzaion. Orduan baino argiago gerora ohartuko zen neskak bazuela keinu horren premia, premia gorria.

Kanpora atera zen. Han, aire zabalean, eguna argitzen hasia zen, sortaldean. Barrura itzuli zenean, neska, berriro zapia buruan, sua hauspotzen ari zen. Ez ikusiarena egin, eta ahots apalez erantzun zion diosalari, begiratu gabe.

Lambaçã handik gutxira agertu zen. Ez zen konturatu neska ohetik alde egina zela, edo horren itxurak egiten zituen. Mahaira eseri zen, kapela begi gainera ekarrita, logale eta isilik.

Neskak kafea zerbitzatu zuen. André neska bekoz beko ikusten saiatu zen, haren begirada amultsuaren eta irribarrearen peskizan. Aurpegia, ordea, ezkutatu egiten zitzaion zapiaren itzalpean, bi gizonak saihestuz. Anoarako ogia eta arrautza frijitu batzuk prestatzen ari zela, Lambaçak, aharrasika, eskua ezarri zion gerrialdean, zer edo zer esan nahirik. Neska, zakar askatu, eta atzeko logelara erretiratu zen pixka batean. Gazteari begitandu zitzaion negar egitera joana zela, baina ezin izan zizkion begiak ikusi handik gutxira itzuli zelarik. Lambaçak, artean logale eta bes-

tela bezala kontuak egin nahi izan zituenean, neskak lanean segitu zuen, entzun ez balu bezala, eta tarte bat pasatu zen bere txokotik, bizkarrez, zera murmurikatu zuen arte:

—Utzi hor.

Lambaçak berriro jakin nahi izan zuen zenbat zor zuen. Azkenean, haiei so egin gabe betiere, zera esan zuen neskak bere ahots ahul abegikorrarekin:

—Egoki deritzozuena ordaindu.

Pluralaren erabilerak, horrek adierazten zuen fintasunak, gaueko eta orain goizaldeko jarrera osoak, horiek guztiek areagotu zioten neskarenganako samurtasuna eta errukia. Bera ere erabat zorigaiztokoa sentitzen zen. Neskaren behakoaren beharra zuen, bere jokabide eta sentimenduak uler edo igar zitzaiz. Zulmira, ordea, bazterrean zegoen, itxura batean denbora-pasan gizonak alde egin arte. Bueltarik hartu gabe, ahots single batekin zerbait esan zuen, gazteak ulertu ez zuena.

Harrizko eskaileraren erdialdean, André gelditu eta atarte aldera biratu zen. Orduantxe ikusi zituen berriro, goizeko argi hauskaran, Zulmiraren aurpegi iharrean, begi haiek, berari begira, adi eta serio. Neskak agur egin zion orduan eskuarekin, keinu ezinago triste, ezinago desanparatu batekin, zeina geroztik maiz etorriko baitzitzaion gogora, mingarri.

14

Zeruak inguratutako goi-ordoki txiki batean, Lambaçak, eseri, eta anoaren paketea zabaldu zuen. Eguzkiak, goi-goian, airearen arintasuna mozten zuen zartada bero batekin. Izerdia perlaturik, Lambaçak, jaka erantzi, eta alkandoraren mahukak bildu zituen poliki-poliki, beso gihartsu iletsuetan gora. Andrék beste horrenbeste egin zuen.

Mauka-mauka jan zuten, labanarekin zati handiak moztuz eta arrautza frijituaren ezkata horiak kontuz bilduz ogiaren mami koipetsutik paperera erortzen zirenean. Denbora gutxiren buruan, anoa eskerga erdira etorria zen. Lambaçak ez zen gelditu. Ahoa betetzen segitu zuen, aldika zintzurra pattarrarekin gogoz bustiz. Ikusirik martxa hartan laster deus ez zela geratuko, Andréri aurreko egunetako gosea gogoratu zitzaion.

—Ez al genuke hobe izango geratzen dena gordetzea geroko? —esan zuen—. Ala badugu non afaldu?

Ahoa mukuru betea zuela, Lambaçak lagunari begiratu zion begi txiki beltz erneekin, eta arrapostu gisa beste zati bat moztu zuen.

—Eraman handia behar da zurekin, horratik –
saiatu zen berriro André-. Ez al duzu entzun zer esan
dudan?

Astiro-astiro, mamurtzen bukatu zuen, jatekoa
ongi xehetuz eta listuztatuz, masailezurren inarrosaldi
bortitzekin, larruazalaren azpiko muskuluak nabar-
menaraziz. Ahokoa hiru mugimendutan irentsi, eta
orduantxe hasi zen hizketan, isekaz:

—Ez larritu, adiskide. Pasatu egin gara.

—Zer pasatu eta zer pasatu oste? –galdetu zuen
Andrék, sutan, bestearen isekagatik.

Lambaçak, sorbaldak uzurtu, eta ahoa berriz
bete zuen janariz.

—Holakoa izatea ere! Lotsa izan behar zenuke –
bota zion Andrék.

Begi txiki beltzek aiherkundez beteriko adikune
batekin erantzun zioten.

—Zer dela eta halako zalapartarik? –galdetu
zuen irentsi ondoren-. Nik pasatu gara besterik ez di-
zut esan –Eta irri-karkailaka hasi zen, harrokeriaz.

—Txantxa gutxi halako gauzeekin! –esan zuen
Andrék.

—Niri bost sinesten duzun ala ez...

Eta paperera eroritako arrautza-printzak hatz-
mamiakin biltzen eta emeki ahoratzen hasi zen
Lambaça.

André zalantzan zegoen. Lambaçak esandakoa
egia izatera, goiz hartan izango zen muga-pasa, nes-
karen etxetik irten eta gero. Noiz, ordea? Ibilaldiko
xehetasunez oroitzen saiatu zen, Portugaldik irten eta
Espainiara sartu zirela salatuko lukeen paisaiako txi-
kikeria baten edo lagunaren keinu edo adierazpenen
baten bila.

—Ez dakit non izango zen —esan zuen bere kautan.

Oraingoan, Lambaçak ez zuen irentsi arte itxaron hizketan hasteko. Aho betetik nekez bai nekez irten zitzaion ahotsa, plazerezko eztanda betean.

—Zer espero zenuen, adiskidea? Mugan hormaren bat egongo zela, ezta? Ala, beharbada, seinaletxoren bat?

Bere burua gehiago bridatu gabe, irri-karkaila hasi zen berriro, otapur zuri-horiak jaurtiz bazter guztietara. Gero, barregurak gehiago jaten utziko ez balio bezala, hondarrak bildu, hurrupa egin, jaiki, eta alkandorako mahukak behehitzen eta eskumuturrak egokitzen hasi zen.

André ere jaiki zen. Beso batetik oratu zion bes-teari, ibiltzen hasi aurretik, eta lasai hitz egin zion.

—Pertsona hobea zinateke, barruan hainbeste gaiztakeriarik ez bazeneuka. Badakizu zergatik alde egin behar izan dudan Portugaldik, eta ondo jabetuta zaude zein garrantzizkoa den nire bidaia. Zergatik jokatzen duzu horrela?

—Pasatu egin gara bestaldera —errepikatu zuen Lambaçak, besterik gabe, bat-batean uzkur eta bekozko.

Handik ehunka metro batzuetara, haran luze batetik jalgi, eta ibai batekin topo egin zuten, zumirien artetik inguruka zihoana.

—Oooo —garrasi egin zuen Lambaçak.

—Oooo —oihartzun egin zuen beste ibaiertzetik.

Berehala, ihi eta sahasen artetik, txaneltxo bat agertu zen. Dozena bat arraunkadatan zeharkatu zuen ibaia.

—Buenas —esan zuen txanelekoak ahots apalez.

Hitz hori aditurik, André txunditu egin zen. Lambaçak egia esana zion. Espainian zeuden.

—Buenas —erantzun Lambaçak.

Txanelekoa agure hezur-huts zarpailtsu bat zen, kapela handi bat zeramana bere aurpegi zurrunaren gainera erorixea. Haren begi itzali hondoratuek, heldu berriei erreparatu bezain laster, ibaia eta ibaiertzak korritu zituzten, astiro eta ezaxola.

Ez zuen erreparorik agertu, edo jakin-minik edo harridurarik adierazi. Isilik, tostan zeharka eserita, beste ertzera eraman zituen bi gizonak, arraunei patxadaz eraginez bere beso hezurtsu lokatuekin. Lambaçak ordaindu ziolarik, bere esku-ahur zailduan jaso zuen dirua, ibaiko uretara bestela bezala begira.

Lambaça aurrean eta André atzean, kilometro batzuk egin zituzten oraindik sastraketan barrena. Harana atzean utzi arren, paisaia ez zen batere mudatu. Bakardade bera, harkaitz biribildu triste berak, eta baita, urrutiago, mendi bera ere, isilik eta mutiri, urrutetik erne eta adi.

Arratsalde beranduan, mendi-mazelan beheara zihoan zidor batekin topo egin zuten. Aurrez aurre, beherago, ilunbe urdinkara batean, harana ikusi zuten ostera, eta orain, zeharkatu berriak zituzten mendien desolazio beti-batekoarekin kontrastean, giza jardunaren presentzia epela sumatzen zen. Nahas-mahasean edo, zuhaitzak, gora zein apal, biluzi zein abartsu, multzo itxitan antolatuta ageri ziren, behe-laino saretu batean troxaturik. Lurra marrazturik zegoen, markaturik, mozturik, txatal zabal malenkoniatsutan, zeinak ibaiaren lorratz beltzaren albo banatara bakez pilatu eta gero, urraturik eta izpiturik, inguruko mendietako mazelen erdietaraino adarkatzen baitziren. Bost bat kilometrora, edo hurbilago, herri handi bat begizta-

tzen zen, eguzkiaren azken errainuak ñirñirka islatzen zituen.

Behean, ordurako iluntzen hasia zuela, harrizko pista xume batera irten ziren. Harrigarri samarra ere bazen zenbait egun mendirik mendi ibili ondoren pista bat hala topatzea. Pista xume hark adiskideak eta etsaiak iragartzen zituen, laztanak eta arriskuak, arraileria eta haserreak, gizarteko bizitzaren borbor betea. Lambaça, gelditu, eta Andréngana biratu zen. Bere begi txiki beltzek, kapelaren gerizpean, diz-diz egin zioten gaiztakeriaz.

—Kontuak egiteko ordua iritsi da —esan zuen Andrék, aurrea hartu nahian edo. Eta sobrea bilatu zuen barruko sakelan, zergatik ez zekiela lotsaturik—. Muga-pasa bi mila dira. Zer zor dizut bideko gastuengatik?

Lambaçak barre ito gogaikarri bat egin zuen, dibertitzeko aspalditik hitz haien esperoan egon balitz bezala. Erantzun gabe, pista aldera seinalatu zuen.

—Jarraitu beti bideari. Aurrerago, hiria aurkituko duzu. Ezkerretara berehala, tren-geltokia ikusiko duzu. Ez duzu zertan ezer galdetu edo engainutan aritu. Madrilerako txartela eskatu, besterik ez duzu egin behar. Edo nahi duzun lekurako.

Andrék dirua zenbatzeari ekin zion.

—Ez beldurrik izan —erantsi zuen Lambaçak bere destainazko ahots gutxiesgarriarekin—. Mugatik urrun gaude dagoeneko, eta hemen kontrol gutxi dago.

—Zenbat dira gastuak orduan? —Andrék berriro.

—Egoki deritzozuna ordain ezazu... —erantzun zuen Lambaçak, Zulmirak agurtzean erabilitako aho-tsa imitatuz.

Hitz horiek min egin zioten mutilari, zaurian piko eginik. Horrexegatik esango zituen, apika, Lambaçak.

—Zenbat?

Lambaçak ez zuen erantzun.

—Beste berrehun ezkutu, ondo? –galdetu zuen Andrék, billeteak zenbatuz–. Beste berrehun eta berrogeita hamar?

Isiltasuna.

—Orduan?

Dozena bat urratsetara, bizkarra emanda, Lambaça aldentzen ari zen, berak seinalatutako noranzkoaren kontra. Andrék pentsatu zuen bazterren batera joango zela, premiaren batek estututa.

—Orduan? –errepikatu zuen.

—Aizu! –garrasi egin zuen Andrék.

Besteak aurrera segitu zuen, zango-oket, soina tente traje beltz arrastodunean, bere urrats erritmiko lotsagabea.

—Aizu! –garrasi egin zuen berriro Andrék, ordu-rako suturik.

Bazen zerbait ordura arte sumatu gabekoa, eta, orain, tanpez, hizketarako behar gorria zuen.

–Aizuuu!

Ilunabarreko argi apalean, pistako lehenbiziko bihurgunean aienatu zen Lambaçaren irudia.

Orduan, Andrék, dirua gorde, eta kontrako noranzkoan segitu zuen.

PIRINIOETAKO MUGA-PASA

1

Eguerdia pasatua zela iritsi ziren Pepe eta bi portugesak Donostiara. Geltokian zain zeukaten kamarada labur solastatu zen Peperekin, eta furgoneta zahar batean jatetxe batera eraman zituen taldekoak. Bazkaldu zuten. Pepek adio esan eta alde egin zuen. Besteak ere irten ziren.

Furgonetak kale eguzki-aseak igaro zituen, udatiarren zalapartarekin borbor betean, eta, gero, kaleka lasaietan barrena segitu, eta, bigarren mailako errepide bat harturik, aldiriak eta biziguneak utzi zituen atzean. Ilundu eta gero, estrata gorde batean gelditu, eta isilik itxaron zuten.

Abel eta Joaquim klandestinoki etorriak ziren Portugaldik, Frantziako muga igaro nahian. Pirinioetan barrena. Harainokoan bezala, dena hain joan zen arin, ez baitzuten deus ikusterik izan hiritik, haren edertasuna hainbeste goraipatua zieten arren. Iraizean sumatua zuten, orobat, mendien ikusgarritasuna, furgonetako leihoaz bestaldean. Pepek, Madrildik haiekin etorriak, esplikatu zien:

—*Van por la cumbre. La frontera pasa por allí.*

Saldukeria ala txantxa? Ez zen erraza antzematen zer dela eta igo behar zuten mendi-tontorrera muga igarotzeko.

Norbaitek eten zituen gogoetak, furgonetako leihora kontu handiz hurreratu eta kristala hatz-koskoekin jota. Gidaria, kanpora atera, eta harekin hitz egitera joan zen. Handik minutu batzuetara, denak irten ziren, eta heldu berriak zenbait jarraibide eman zizkien.

Ezin zuten pisurik eraman, furgonetakoak ekarritako jatekoaren paketeaz gainera. Ez zuten beste jakirik izango ibilaldiko bi egunetan.

Zapatak erantzi eta utzi beharko zituzten, eta heldu berriak emandako abarketak jantzi.

Muga-pasa hiru etapatan egingo zuten; baikoitza, mugalari batekin. Lehenbiziko etapan, heldu berria bera izango zen mugalaria, eta mendian utziko zituen, halako leku batean, non bigarren mugalariak jasoko baitzituen. Beste horrenbeste gertatuko zen hirugarrenarekin.

Azalpena aditu eta abarketak jantzi ondoren, agur esan zioten Donostiako kamaradari, eta mugalariak segituan esan zien berari segitzeko.

—Neuk eramango dut paketea —esan zuen Abelek.

—Utzi, neuk eramango dut —esan zuen Franciscok.

2

Pausaje lasaian, sasirik sasi, zidorretan eta lursail hesitu gabeetan barneratu ziren. Orain zuhaitz artean, orain lursail larrutu agerietan. Gauaren ilunean, bi lagunei iruditzen zitzaien ez zirela inoiz mendian gora hasiko. Pausaje luze lasaian, mugalariak adierazi bezala, orduak egin zituzten oinez. Ibiliarekin gorputzak berotzen zitzaizkien, egurats geldoan bildurik, zeina gero eta freskoagoa eta arinagoa baitzen. Altitudean gora ari ziren, malda pikorik gabe.

Belaze bigun batean barrena zebiltzan batean, mugalaria gelditu zen.

—*Hay que beber un poco de agua fresca* –esan zien.

Eta, ziplo, luze-luze erortzen ikusi zuten, aurpegi lurrari josita. Sor eta lor, hari laguntzekotan zirela, salto batean altxatu zen, besaurrea ahotik pasatuaz.

—*Beban, está buena.*

Edan nola? Azalpena entzun ondoren, mugalaria bezala etzan ziren, eta belazetik behera emaro zetorren ur-xirripari ahoa hurbilduta berdindu zuten egarria.

Altxatu ziren. Berehala, miraz, berriro etzan ziren edatera.

Gauaren minean segitu zuten aurrera. Eguratsa garbia zen, zeruan izarrik ikusi ez arren. Orain mazelan pendiza nabari zen, mendien irregulartasuna itxuratzen. Mendi-mazela batean gelditu ziren azkenean; ilunpetan, iratze-meta handi batzuk ikusten ziren.

Orduan, Abelek, ozen hitz egiteko debekuaren kontra, garrasi egin zuen:

—Jatekoaren paketea?

—Ez zenuen jaso, ala? —galdetu Franciscok.

—Zeuk zenekarren.

—Zotz! Han geratu da, ura edan dugun lekuan.

Pentsatu ere ez hara itzultzerik. Hain zen burugabea, ez baitzuten deus aipatu mugalariak, pixka batean urrundua baitzen, haiengana itzuli eta azaldu zielarik zer egin behar zuten.

Lurrean etzan. Hark iratze-meta bat jarriko zien gainean. Zirrikitu batetik hartu ahalko zuten arnasa. Goizean, beste mugalari bat etorriko zitzaaien bila.

Halaxe egin zuten, eta alde egin zuen.

Iratzea, astuna izan arren, ondo jasaten zen, eta gaueko hotz gero eta handiagotik ondo babes-ten zituen. Ahuspez pendizean, besoak gurutzaturik kokotsa babesteko, aurrean iluntasuna besterik ez zeukatela.

Bat-batean, argi batek atentzioa eman zien oso urrutitik, eta nontsu zeuden adierazi ere bai. Auto baten argiak ziren, han behean, oso behean eta oso urruti, errepide batean barrena. Ikuskaria hain miragarria iruditu zitzaaien, non, jatekoaren pakete galdua eta babesaren deserosotasuna ahazturik, esna geratu baitziren, begiak zabal-zabalik paisaia beltzera so, harik

eta berriro beste auto baten argi-izpiak ikusi zituzten arte, eta beste batenak, eta beste batenak, mendiaren zola urrunetik deika eta diosalaz ariko balitzaizkie bezala.

3

Abel lehena izan zen esnatzen. Oin-hotsak. Ukondoarekin jo zuen Francisco, esnatzeko. Aurrean, behe-lainoa lurraren pareraino. Berehala, ia aurpegia-
ren ondoan, bi hanka agertu zitzaizkien bota lodiak jantzita. Segituan, gaineko iratzea kendu, eta albo batera bota zuten.

Kostata jaiki ziren, bezperako ibilaldiak eta gau txarrak txikituta. Aurrean, tente eta serio, mugalari berria zeukaten, abegikor begira.

—*Buenos días. ¿Listos para caminar?*

Halaxe hasi zen, bada, bigarren etapa. Egun osoan ibili eta ibili, geldialdi laburrak eginez atsedean hartzeko. Eguerdian, etxola atsegin batean geratu zen mugalaria. Jan-edanerako ordua omen. Jatekoaren paketearekin gertatua jakin bezain laster, ez zuen gaitzespenezko hitzik esan.

—*Donde come uno pueden comer dos o tres.*

Natural-natural bota zien, zeukan apurretik eskaini zien bezain natural. Ogia, gazta, hurrupa batzuk ardo kantinploratik.

Indarberriturik, berriro ekin zioten martxari, ilunabarrera arte. Ez zuten ongi ulertzen zer dela eta alde hori gaueko ibilaldiaren eta egun-argikoaren artean, bide-erakuslea itxura batez kezkarik gabe baitzebilen. Mugalariak azaldu zien. Bart inguru oso arriskutsu bat igaro zuten, oso zaindua eta patruila ugarikoa. Orain altitude handian zebiltzan, bakarlekuetan. Mendiak ezagutzen zituenak bazekien xendra seguruak aukeratzen.

Mugalaria gizon zorrotz eta hitz gutxikoa zen, baina atsegina eta lagunkoia ere bai, eta bidelagun ona zen, fidatzekoa. Ilunabarrean, mendi bat igo ondoren, paisaia harrigarri bat begietaratu zitzaien. Bista ekialdera zabaltzen zen, eta, ikus ahala urrun, gailurrerian mendien koskak ikusten ziren, diz-diz eguzkitan, haran eta erreka-zuloetako sakonera beltzen kontrakarrean.

Han goian laga zituen mugalariak, borda erori bateko paretan ondoan; harrigarria zen halakorik ego-tea hura bezalako leku batean.

—*Mañana es la última. Vienen a buscaros temprano.*

Adio esan, urrats batzuk egin, eta itzuli egin zen, hitzik esan gabe, kantinplora uzteko.

4

Hirugarren mugalaria ez zen agertu iragarri bezain goiz. Artega, biak irten ziren borda eroritik. Han behean, mendien zola oraindik lotan zegoen arren gauaren ilunetan, goietan argitasun aratzez ageri zen eguzkia dagoeneko. Paisaia isilean, aire arin hozkirriak zabaltasun atsegin bat ematen zuen arnasa hartzean. Halaxe joan ziren ordu batzuk, paisaiak xarmaturik baina adoregabeturik eta urduri.

Azkenean agertu zen mugalaria. Urrutiko goragune bateko altitude askoz apalago batetik azaldu zen, eta astiro hurreratu, besteak bezala urrats luzetan igoz.

—*Bonjour. Êtes-vous prêts?* –esan zien frantsesez, haiengandik metro batzuetara.

Berehala ibiltzen hasi ziren hura etorritako lekurantz.

Bat-batean, ikuspegi luze-zabal liluragarri bat agertu zitzaizen mendebaldean.

Mendi eta haitz multzoen artetik kirika, hainbat maldatan, larreen berde bizia ñirñirka ari zen, eguzkitan. Han behean, ikus ahal urrun, arloak, zuhaiztiak eta biziguneak hedatzen ziren iparrera, argizko eta

kolorezko jolas batean. Eta mendebaldera, zeruertz luzearen marraraino galtzen zen bista, zeruan eta itsasoaren orban zilarkara erraldoian.

Laster, larreen berdetasun biguna zapalduko zuten, altitudea kolpean galduko zuen jaitsiera batean.

Beste ezuste bat zeukaten zain. Dunba-hotsen ahaireak, laburrak eta tartekatuak. Eraikin moduko batera hurbiltzen ari ziren, eta handik zetozen hotsak. Halako batean, behi batzuekin topo egin zuten, lasai bazkatzen ari zirela. Ez zegoen inor inguruan. Harri-garria zen, gisa berean, han eta hemen esnez beteriko pegarrak egotea; bai, esne jetzi berriz beteak, apar eta guzti.

Azkar eta ezin eutsiz, Abelek eta Franciscok, bibiek, lasterrari eman zioten, eta edan eta edan zuten, muturra pegarren azaleko bits epelean sartuta, eta, jaitkitzean, arnasa sakon hartu zuten. Ase.

—Bai goxoa! —esan zuen Abelek, ahazturik ume-tatik ez zitzaiola esnea gustatzen.

—Horixe, goxoa! —bat etorri zen Francisco.

Gidariak adi eta isilik begiratzen zien. Keinu bat besterik ez zuen egin, segitzeko.

Jaitsiera amaiturik, orduan bixi-bixi ibiliz, bizkor zeharkatu zituzten errepideak, eta, herriguneak saihesturik, hiri batera iritsi ziren arratsean. Pentsio batera joan ziren. Aurkezpenak egin eta gero, mugalariak, adio esanda, alde egin zuen.

Aspaldiko ezagunak balira bezala tratatu zituzten. Arropak eta oinetakoak eman zizkieten. Bainu beroa prestatu zieten; afori eder bat egin, eta, bihar-munean kamarada bat bila etorriko zitzaizela jakinarazi ondoren, ohe biko logela batera eraman zituzten, ga-bon esan aurretik.

Artean ahaztu gabe zeukaten huskeria bat. Bainua hartzean, biek ziztadak nabaritu zituzten berrondoan eta sabelaren azalean. Eta kapar sail eder bat aurkitu zuten, batzuk karramarro ñimiñoak bezalakoak, beste batzuk biribilak eta zuriak aranak bezalakoak. Bart harrapatuak zituzten, ez bairik gabe, iratzeen azpian, mendi-tontorrean.

—Ez sinestekoa da nola ez garen ohartu —esan zuen Abelek.

—Nik zerbait nabari nuen —esan zuen Francis-cok—, baina iratzeengatik zela uste nuen.

SALBAMENDU-TXALUPA ETA ARMAIRUA

1

Halako ordu batean, kaialdeko ilunantzean, auto bat agertu zen astiro-astiro; isilka gelditu, eta faroak itzali zituen. Aldamenean, lanbroak lausoturik, itsasontziaren forma beltz dotorea, eskaileraren zeharretarako marra argiak urratua.

Agurra, laburra eta hitzik gabea. Jaitsi zen. Autoak berriro argiztatu zuen kaia faroekin, aurrerago ilunpean aienatu aurretik.

Saul bakarrik zegoen kai mortuan. Joseph ize-neko marinela bat omen zeukan zain. Denborarik galdu gabe, zementuzko lurretik jauzi egin, eta eskailera igo zuen. Han goian, ontzigainaren luze-zabal handia agertu zitzaion aurrean, gaizki ikusten zen arren. Erraldoia eta hutsa. Ez giza irudirik, ez mugimendurik, ez hotsik. Bizi-seinalerik ez. Irudi zuen ontzia bertan behera utzia zutela. Portuko uren urrin heze gaziak, petrolio-keru nabarmen batekin nahasian, kutsu larri bat eranstean zion giroari.

Ontziratzeko atearen ondoan geratu zen. Hala adostu arren, Joseph ez zegoen han esperoan. Zer egin? Amore eman eta atzera egin? Eskailera jaitsi, ontzitik

alde egin, eta gero? Ez zekien portutik nola atera, ezta lagunak nola bilatu ere.

Ontzigainean harago, txopa aldera, ontziaren gorputza eta tximiniaren soslaiak sumatzen ziren. Ontzian baten bat egonez gero, Joseph zain baldin ba-zeukan, hantxe egon beharra zeukan. Konturatzeko, espazio ilun zabal hartan barrena zebilen noranzko horretan.

Han atzean, beste muturrean topatu zuen Joseph, geldirik eta ilunpetan ezkutaturik, berarekin zerikusirik ez baleuka bezala. Erne zegoen, ordea.

—Viens ! —zezelkatu zion.

Saulek segitu zion.

2

Beso batetik helduta, Josephek eskailera bihurrikatu meharrezko ibilbide batera eraman zuen, sigi-saga. Azkenean, gelditu egin ziren, erabat ilunetan, konpartimentu batean. Estua, itxia, aire kargatukoa zirudien. Josephek nonbait etzaten lagundu zion, eta burusi batekin tapatu zuen.

—*Ne bouge pas, je reviens* –esan zuen ahopean.

Saul zain geratu zen.

Halako batean, ontzi osoaren inarrosaldi batek urratu zituen isiltasuna eta gelditasuna, eta, gero, makinaren burrunba sor errimea etorri zen.

Joseph itzuli zen, esku-argi elektriko bat harturik, eta, burusia kendu eta jaikiarazi ondoren, armairu estu altu bateko atea zabaldu zuen.

Saulek ez zuen segituan ulertu zer nahi zuen.

—*Vite, vite, ce n'est que quelques minutes.*

Eta, bestelako esplikaziorik eman gabe, bultzaka armairuan sarrarazi, bi astinaldi bortitzekin han egokitzen lagundu, eta berehala itxi zuen atea. Saul erabateko iluntasunean aurkitu zen bat-batean, kabitzen ez zen toki batean bortizki zanpatua, hertsatua,

galkatua, katigatua, zirkinik egin ezinik eta ozta-ozta arnasa hartzen zuela. Hilkutxa batean itxi balute bezala. Alde bakarra zegoen, eta txarrerako: etzanda barik zutik zegoela.

Urratsak eta ahotsak. Armairuaren aurrean, aho-pean ari ziren. Berrero urrats batzuk. Berrero makinan burrunba sorra besterik ez, krosko osoaren dardara eta nabigazioaren kulunka erritmoduna.

Orduak azkenik gabe igaro ziren. Jarrera jasanezina zen, eta ez zegoen aldatzerik. Min erdiragarriak zeuzkan hanketan, lepoan, bularrean, besoetan. Itolarria. Ezin gehiago eutsi. Ezin iraun. Eta denbora amaigabea geldirik. Hala jarraituz gero, azkenean garrasika hasiko zen handik atera zezaten, ondorioak ondorio.

Ustekabean zabaldu zen armairuko atea, eta Joseph, esku-argia piztuta eta beste marinel bat lagun zuela, heldu egin behar izan zion ez erortzeko. Eskuan edontzi bat zekarren berarentzat.

—Bois ! Ça te fera du bien !

Nekez bai nekez tente, izerdi hotzetan blai, Saulek hurrupa bakarrean hustu zuen. Alkohol bizkor-garriak gorputz osoa zeharkatu zion lasterka.

Bi marinelek ez zuten denborarik galdu. Esku-argiak amatatuta, ilunpean barrena gidatu zuten; eskailerak igo zituzten, eta, ontziaren tontorrean, aire zabal hotz eta hezera irten ziren, non olioaren eta petrolioaren sunda nonahikoarekin batera kresalaren usaina ere hartzen baitzen.

Dena arin joan zen. Arrapaladan, salbamentu-txalupa bateraino eraman zuten, zeinak olanazko estalkia kendua baitzuen; igotzen eta sartzen lagundu zitoten, eta segituan bi pakete bota zituzten barrura.

Aise lotu zuten berriro olanazko estalkia, eta alde egin zuten.

Ez zen erraza jarrera egokia aurkitzea. Estalkia ia txalupako tostetaraino iristen zen, eta tosten artean edo azpitik luzatu behar zituen hankak. Ahal izan zuen gisan moldatu zen. Armairukoaren ostean, arinduta zegoen. Azkenean, herrialdera iristeko agindutako txokoan zegoen.

Ontzia itsas zabalean zebilen ordurako. Goizaldeko haize hotza sartzen zen olanazko estalkiaren irekidura erdizirkularretatik. Hainbeste ordutan tentsioan egon ondoren, halako lasaitasun- eta segurtasun-sentipen batek jo zuen.

3

Ez zuen luze iraun. Salbamendu-txaluparen zolan, bazegoen sokazko eskailera bat, harriak bezain gogorreko korapiloak zituena eta etzatea eragozten ziona. Hala ere, saiatu zen. Ezin. Ontziaren kulunkarekin, ez zuen bakerik izaten inongo jarreratan.

Lehenbiziko egunean, itsasoa bare zegoela, ustekabe batzuekin entretenitu zen. Olanazko estalkiaren irekiduretatik zeru txatal bat ikusten zuen. Urdin eta zohardi. Kalatxoriek segitzen zioten uberrari, hegaz eta garrasika, ontziak helizeen jira-bira monotono beti-batekoaren doinuan aurrera egiten zuen bitartean.

Halaxe eman zuen egun amaiezina, noizean behin jatekoa marruskatuz, ura hurrupaka edaten eta halako jarrera txarrean debaldetan lo egiteko ahaleginean.

Bigarren eguna ustekabeko gertakari batek alaitu zuen. Saulek ahotsak aditu zituen hurbiltzen, algarak, barreak, iskanbila handia. Eta, zalaparta batean, indarrez jaurtitako ura sartu zitzaion txalupa barrura. Behin, bitan, hirutan, marinelen ahots alaiak gero eta hurbilago.

Ontzigaina garbitzeko eguna. Saul blai-blai eta hotzak zegoen.

4

Ekaitzak aurrera egin zuen gauean barrena, bazetorrela poliki-poliki iragarritz, nagusitasunez eta ezinbestez. Lehenik, helizeen daldalaren erritmoa urratu gabe. Olatu-kolpeek branka jotzen zuten tarteka, kolpeen oihartzun goibelarekin ontzia ikararaziz. Gero, gogortu egin ziren ukaldiak, dardarak, kulunkak. Haize-boladak ufada sorretatik auhenetara, txistu zizkolatsuetara, erraldoien ufakoetara igaro ziren, uhinak eta itsaso zakarra marruka ari ziren bitartean, karela gainditurik ontzigaina alderik alde zeharkatuz turrustan. Branka olatuen zolan eta txopa urtetatik kanpo, helizeak airean ari ziren biraka zarata metaliko zorrotz batekin, denboralearen oldarraldi sorra zaurituz.

Orduak igaro ziren horrela. Gero, etorri bezala joan zen denboralea. Haizetearen txistu eta garrasieta-tik haizealdi gero eta apalagoetara pasatuz. Kroskoaren aurkako olatuen talka zakar lehorretatik olatu sailak hautsi aurretik sortzen ziren angelu gero eta txikiago-zabuetara. Astinaldi frenetikoetatik, inarrosaldi eta ukaldietatik gero eta lasaiago aitzinatzen, ozeanoaren

azalarekin gero eta amultsuago elkartzera, mugimendu harmoniatsu batean.

Amaitua zen ekaitza.

5

Hirugarren eguna besterik gabe joan zen, itsasoa bare zegoela. Maspildurik, minberaturik, jarrera egokia bilatu ezinik egon arren, Saulek loaldi labur sakonak egin zituen. Halaxe lokartu zen berriro ilunabarreko argi apalean.

Oraindik gaua zela itzarri zen, aldaketaren bati antzemanik. Orain motorrak tur-tur ari ziren eztiki. Astiro kulunka, ontzia geldirik zegoen.

Joseph eta haren laguna agertu ziren txaluparen barrura begiratzera, eta, arin-arin, olanazko estalkia askatu zuten.

—*Vite, passe moi le seu !*

Josephhek pegarra eman zion lagunari, eta hark berehala, jaurtiketa luze batean, kareletik behera bota zuen.

—*Prends tes affaires et viens ! Vite !*

Saul aldaroka mugitu zen txaluparen eta olanaren artean; baldarki jauzi egin zuen kanpora, eta bi marinelek, aurrekoan bezalaxe, firrindan eraman zuten ilunpean barrena.

Gelditu zirenean, esku-argiak piztu zituzten, eta Saulek lehengo armairua ikusi zuen aurrez aurre; hain zuzen, itsasoratzean bizia galduko zuela pentsatu zuen tokia.

—*Ah, non ! Ça non !*—kontra egin zuen.

Erantzun ere ez zioten egin. Bortizki bultzatu zuten txoko estu hartara; buelta emanarazi ate alde-ra bizkarrez geratzeko, eta hormarteratu egin zuten berriro.

Saul kinka larrietan egona zen bere bizitzan; herio hurbil izana zuen. Haiexek iruditu zitzaizkion, ordea, bere bizitzako ordurik negargarrienak, armairu haren ilunetan pasatutakoak. Zutik zegoen, buru-tente, eskuak atzean eta hankak zabalik, zirkinik ere egin ezinik; garondoa hondotik mugitzen zuen aldiro, aurpegiarekin jotzen zuen atea, mugitzeko, esertzeko, arnasa hartzeko, amaitzeko amorru bizian.

Ez zen sekula, sekula, sekula ere amaitzen. Ezin zen jasan, ezin, ezin. Sekula, sekula ez. Harik eta ontzia, motorrak berriz azeleratu eta nabigatzen segitu ondoren, gelditu zen arte, helize-hotsa apaltzearekin batera. Ahotsak aditzen ziren; mugimendua sumatzen zen barruan. Mugimendu txikiak, aurrera, atzera, alborra. Sauli iruditu zitzaion porturatuak zirela.

Orduan dena arrapaladan gertatu zen. Josephek, armairua ireki, eta Sauli heldu zion ez erortzeko, erdi hilean baitzegoen, eta, trago bat pattar eskaini ondoren, zutik egoteko gauza zela egiaztatu zuen.

—*Nous y sommes, mon vieux.*

Eta, berehala, zer egin azaldu zion.

Kanpora irten, eta ontzigaina zeharkatu beharra zeukan. Deblauki. Inori begiratu gabe. Ontziratzeke atera zuzen joan, eta eskailerak jaitsi kaialdera.

—*J'irai tout de suite après toi.*

6

Halaxe zegoen hitzartuta. Marinel batek emango ziola lehorreratzeko pasa-hitza, eta biek batera pasatuko zituztela portuko poliziaren kontrola eta kanporako atea.

Saulek, oraindik ere ibilera baldarrez, Josephek adierazitako moduan jokatu zuen. Korridoreko argi apaletik eguzkiak jotako ontzigainera igarotzean, mugimendu bizi maratzak harritu zuen. Marinelak hizketan ari ziren; hara-hona zebiltzan, denetariko gauzen garraioan. Saul, aurrera egin, eta saltsa-maltsa haren erditik pasatu zen. Izaturik ohartu zen inork ez ziola kasurik egiten, eta, horrenbestez, ontziratzeko atera eta kairako eskailerara iritsi zen. Orduan, gibelera begiratu zuen, Joseph hurbil izango zuelakoan.

Ez zegoen han. Berriz ere zerbaitek huts egina zuen. Okerrago, orain amaieran, helmugan, herrialdera iritsita. Ontzira iritsi zenean bezala jokatu al zuen Josephek? Nola igaro orain kontrola, lehorreratzeko pasa-hitzik ezean? Ezin zuen besterik egin, ordea. Eskaileretan behera egin, ez biziegi, ez geldoegi, eta,

kaiialdea zapaltzean, zirrarez ohartu zen azkenean Portugalen zegoela.

Handik metro batzuetara, bera bakarrik ikusita, portuko poliziako agente bat begira-begira ari zitzaion, txapel zuria buruan.

Bat-bateko burutaldi bati jarraituz, buelta hartu, eta gora, ontziratzeko atera, begiratu, eta ahal izan zuen frantses ahoskerarik onenarekin garrasi egin zuen:

—Eh ! Tu viens, quoi ?

Oraindik segundo batzuk joan ziren. Txapel zuriko polizia hantxe berari begira. Joseph, baina, dagoeneko jaisten hasia zen, eta Saulek han behean itxaron zion, poliziari bizkarra emanda, hura begira-begira ari zitzaiola. Biek, elkartu, eta elkarrekin egin zuten kanporako bidea, portuko atera zuzenean. Josephhek ondo ezagutzen zuen bidea.

Beti hain isila, ez zion frantsesez ozenki hitz egiteari utzi kontrolera heldu arte. Azkenean erraza izan zen. Beste marinel baten txartela pasatu zion; txartelak erakutsi zituzten portuko atea pasatzean, eta kanpoan zeuden. Handik ehun metrora, kale bat, ia jenderik gabe, biltegiak eta etxe horixka zaharrak albo banatarra. Beste kale bat, bestelakoa. Jende-mugimendua eta dendak.

Portuko atea igaro ondoren, Joseph isildu egin zen. Taberna baten ate ondoan gelditzean hasi zen berriro hizketan.

—On boit un coup ?

Sartu, edan, irten. Pixka bat harago, berriro gelditu, eta eskua tinkatu zioten elkarri, ponperiarik gabe.

—Prend garde à toi, camarade –esan zuen Josephhek.

—Peut-être on se reverra un jour –esan zuen Saulek.

Kalean bizitu egin zen mugimendua. Langile-emari etengabe bat zebilen. Ordurako urrun zen portu aldetik, ontzi baten txistu sorrak aditu zituen.

HITZATZEA

PIRINIOEZ GAINDI ZAPATAK APURTUTA

Nire belaunaldiko jendearentzat, batik bat europarra izanez gero, berezkoa zen mugalde batean bizi izanaren sentsazioa izatea, mundu baten amaieran, beste mundu baten hasieran.

Victor Serge⁵

Geldian utz ditzagun Lambaça eta André muga pasatuaz batera mundu berri batez erditzeko lanean. Berez hala behar du zeren haien istorioa amaitu da nahiz beharbada oraindik zuetakoren bat ariko den mamurtzen ea nora joango den André edo zer gertatu den zehazki narrazioaren argi-itzaletan. Gibelsolasen asmoa sarritan guztia xehe-xehe ematea bada ere hau ez da inondik ere hala izango. Estutu egin nahi zaitut bestelako gibel-asmorik gabe. Zirikatu nahi zaituztegu komarik gabe (ez zaigu ezer hoberik otu auto baten maletategian Portugalgo mugatik Irunerainoko bi-daian jasandako itolarria irudika dezazuen). Bidenabar

5 Victor Serge, *Mémoires d'un révolutionnaire (1901-1941)*, Le Seuil: 1978 Paris.

emigrazio hura bere testuinguru zabalean paratzeko ahalegina egingo dugu.

Emigrazioak jende-hustu zuen Portugal 1960ko eta 1970eko hamarkadetan milioi bat eta zazpiehun mila lagun Europa aldera bidalita. Ez ziren noski denak pobreziarik gorrienak akuilatuta joango bizimodu hobe baten esperantzan. Baziren orobat arrazoi politikoen-gatik alde egiten zutenak edo gerra kolonialetatik ihes egiten zuten desertore nahiz soldadugaiaak ere garaitsu hartan piztu baitziren Afrikako kolonia portugesean askapen-gerrak. Eta denek ere ez zuten gisa berean gaindituko muga. Batzuek isilka klandestinoki pasatuko zuten (zenbait alditan hamarretik bederatzik) baina beste batzuek baimena lortuko zuten Frantziako Errepublikak ezarritako kupo batzuen arabera aurretik horretarako «mafia santu»aren baimena lortuta (jauntxo apaiza polizia politikoa) eta ondotik osasun-azterketa bat gaindituta.

Portugalgo Estado Novoari interesatu egiten zitzaion diru-emari goxo hori ekonomia bizkortzeko eta industrializazio-planak finantzatzeko. Dena dela emigranteak iheslaritzat hartuak ziren Portugalen eta espetxean amaitu zuten haietako askok (batik bat soldadutzarako adinean zeudenak). Espainia zen Europara bidean igaro beharreko zubia baina 1966az geroztik ez zen eragozpenik izan bi estatuek hitzarmen bat sinatu baitzuten portugesei Espainia zeharkatzeko hilabeteko baimena emanaz. Iheslari politikoak jakina halako baimen berezietatik kanpo geratzen ziren eta muga baimenik gabe *a salto* igarotzen segitu behar izan zuten liburuko protagonistak bezala. Liburuan bertan ikusten denez kontrabandista arrunten bideak erabiltzen zituzten iheslariok ere (gurean 36ko eta 59ko gerretakoek bezala). Kafearen azukrearen eta tabakoa-

ren bidetik abiatu ziren ba iheslari politikoak izan zein ez. Eta gurean aurrerago ikusiko dugunez parpailen pneumatikoen errodamenduen tabakoaren edo zamarien bide beretatik zamarien baldintza bertsuetan.

Portugalgo literaturak ez zion toki handirik egin jende-olde hari 1974ko apirilera arte besteak beste zentsurak galarazi zuelako halako gai itsusi minberak azaleratzea. Izan ziren halere salbuespenak: Urbano Tavares Rodriguesen zenbait narrazio edo Maria do Pilar Figueiredoren ipuin-liburuak. Assis Esperançaren *Fronteiras*⁶ eleberria ere aipatu behar genuke: muga-pasa klandestinoen inguruko literatura-lanik nabarmenena eta neurri batean berritzailea ere bai protagonista emakume bat zelako hein batean eskolatua gainera. Azken eleberri horretako narratzaileak erabat beteko zen iragarpen ilun bat egin zuen:

[...] eskualde hartan eta mendialdeko beste eskualdeetan seguruenik azkenean emakumeak, zaharrak eta haurrak baino ez ziren geratuko.

Beira Baixako bazter haiek ezagun dituenak badaki halaxe dela hutsik geratu zirela eta udan baino ez direla nolabait biziberritzen joandakoen itzulera-ekin. Denean dira emigranteari eskainitako egunak emigrantearen omenezko estatuak O Suiço izeneko tabernak. Hantxe geratu dira orobat joandakoen etxeak dirua inurri-inurri bilduta altxatutakoak eta beharbada datozkeen belaunaldiek erortzen utziko dituztenak. Horren erakusgarri dakargun hona pasadizo bat. Pasai Antxoko tren-geltokian zain dagoen bidaiari bati inguratu zaio andrazko bat zeinari berehalakoan portugus-usaina hartu baitio hizkeragatik eta ttar-ttar

6 Antonio Assis Esperança, *Fronteiras*, Editorial Inova: 1973 Lisboa.

hasi zaio lehenbizi gaztelaniaz eta gero hizkera ñabar batean kontatuaz nola hemen lanean aritua zen urtetan dirua aurrezteko eta etxe bat eginarazia zuela herrian etorkizunean han bizitzeko esperantzan baina gizona hil zitzaiola eta seme-alabek ere beraren beharra dutela umezain laguntzeko eta etxea han dagoela eder-ederra baina inork erabili gabe eta pena dela eta hola eta hola eginda dagoela eta azken beltzean bigarren belaunaldiko etorkinak ez direla gehiago etorkinak ezpada erreinuarde bateko biztanleak.

Bueltatu gaitzen ordea berriro literaturaren emaitzetara. Diogunez oso obra gutxi idatzi dira legez kanpoko emigrazio horretaz. Aipatutakoez gainera badugu Nita Clímacoren *O Salto*⁷ eleberria. Bitxia da liburu hori egile beraren aurreko lan guztiak zentsuratua izan baitziren. Zergatik ez hau ordea? Ba zentsura salazaristari begitanduko zitzaiolako liburuak bazekarrela ikaskizun moralizatzaile bat immigrazioaren ondorio galgarriak bistaratzen zituena protagonistak eleberriko azken paragrafoan argi aitortzen duenez:

Ez dut [Frantziara] bueltatzeko esperantzarik; Portugalen bizimodua hobea da. Frantzian bizitza ez da ona denentzat. Gehiago dira —nik bezalaxe— gosea eta miseria pasatutakoak [...] tipo bat tematzen denean Frantziara joan behar duela, han bizimodua aterako duelakoan, laster bai laster konturatzten da hura ez dela inondik ere paradisua.

Gerra kolonialetarako gai ziren gizon gazteei alde egiten ez uzteko diskurtso ofizialaren mesederako zen liburuko azken mezua. Krabelin-erauntsiaren osteko literaturak fruitu gehiago emango zituen gai honen inguruan baina beharbada hobe izango dugu gurera hurbiltzen hastea badugu-eta horretarako tenorea.

7 Nita Clímaco, *O Salto*, Editorial Organizações, Lda: 1967 Lisboa.

Euskal Herriko literaturetan portugesez pasak ez du arrasto handirik utzi. Pablo Antoñanaren *La cuerda rota*⁸ aipatuko genuke (aipatuko eta gomendatuko) gaiari bete-betea helduz baitio. Komeni da gogoraztea liburua 1961ean idatzi eta Nadal sarian finalista gertatu arren ez zela plazara atera 1995era arte zeren bere garaian editoreak zentsuraren beldurrez ez baitzuen argitaratu nahi izan (Manuel Tiagok ere 1975ean argitaratuko zuen 40ko urteetan girotutako nobela hau auskalo noiz idatzia). Dakartzagun hona Antoñanak aurkezpen-ekitaldian egindako adierazpen batzuk:

Gaur egun irudi du gaurkotasunik gabekoa dela kontakizuna edo substantzia galtzen duela eta zorigaitzak edo halabeharrak jazartitako gizon batzuen ibilera patetikoek interesez gutxiago izan dezaketela.

Idazleak ez zuen berehala pentsatuko zenbaterainoko larritasun urgentea izango zuen immigrazioak XXI. mende honetan. Fede handiagoa zuen Sophia de Mellok⁹ etorkizuna iragartzean Tiagoren liburu hau XXI. mendeko lehenbiziko liburu portugestzat jota. Jakina da geroa iragartzea ez dela batere egiteko segurua eta ezin esan De Melloren aieruak inondik ere bete direnik.

Bost egun, bost gau mende honetako portugesezko testu narratiborik onenetako bat da. Liburu zehatza da, edergailurik gabea, sobera batere ez daukana. Testu dentsua, intentsua, hitz guztietan. Ilunkeriarik edo jakinkeriarik gabea. Testu bat aldi berean egituratua eta bizia. Egitura lineal baten bidez misterioaren arnasa eragozten ez duena. Errealetik hurbil idatzitako liburu bat, ikusgaitik hurbil, baina mitorako eremu erraldoi bat uzten duena. [...] *Bost egun, bost gau*, apika, XXI. mendeari dagokion lehenbiziko prosa narratibo portugesa da.

8 Pablo Antoñana, *La cuerda rota*, Pamiela: 1995 Iruñea.

9 Urbano Tavares Rodrigues, *É Tempo de Começar a Falar de Álvaro Cunha*, Edições Asa: 2006 Lisboa.

Genioenez gehitxo iritz liezaioke irakurleak halako hitzei batik bat narratibaren bideak beste derrota batzuk hartu dituelako baina ezin esan liburuaren nolakoak deskribatzen motx geratzen denik poeta.

Hor utzi ditugu Lambaça eta André adituen arabera Trás-os-Montes eta Sanabria bitarteko lekuren batean nahiz guri ez zaigun askorik axola zehazki zer leku den hori. Gauza segurua da biek hiztegi berezi bat eramango zutela aldean nahiz hitz guztiak beharbada ez zituzten jakingo. Lexiko horrek erakutsiko liguke nolakoa zen emigrazio klandestinoaren katea. *Engajador* edo kontratatzaileak emigratu nahi zutenekin kontaktua egiten zuen gehienetan azoketan tabernetan edo dendetan *passador* edo mugalariak bestaldera eramaten zituen *indio* edo *ahariak enlaçe* edo bitartekariak gordeta edukiko zituen *transportista* edo garraiolariak bildu eta beste mugalari baten esku uzten zituen arte dagoeneko Euskal Herrian. Hori jakina muga *a salto* alegia ilegalki igarotzen zutenen ibilbidea zen *passaporte de coelho* edo untxi-pasaportea besterik ez zutenena.

Garraioa ere aldatuz joan zen bai eta azpiegiturak ere. Rosa Arburua Goienetxe irundarrak ezin hobeto ematen digu ipi-apa guztiekin halakoen berri *Euskal Herriko mugaz gaineko portuges pasan*¹⁰ ikerlanean zeina gure artean gaiari buruzko ezinbesteko erreferentzia-iturria baita. Euskal garraiolariak bitartekariak atondutako upategi biltegi lastategi borda edo antzekoetan jasotzen zituzten portugesak eta Euskal Herrira ekartzen zituzten lehenbizi autoetan maletategietan sartuta (hamahiru ere bai Peugeot 404 edo Citroën Tiburon batean) taxietan eta gero kamioietako fondo

10 Arburua Goienetxe, Rosa: «Euskal Herriko mugaz gaineko portuges pasan», *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria*, 28. zk., 297.-464. or.

faltsuetan (kopuru handixkotan zutik olanen azpian erdi itota txiza ganean eginda zorabiatuta). Euskal Herrira iritsita mugalarien esku utziko ziren migratzaileak eta bestaldera eramango zituzten. Han taxiz edo trenez abiatuko ziren etxetik apuntaturik zeramatza-ten Frantziako helbideetara.

Ez zen izaten noski kontraturik edo osterantze-ko agiririk tratua bermatzeko. Beraz 60ko hamarkadan hasi ziren argazki urratuaren metodoa erabiltzen. Migratzailearen argazki bat hartu eta bi zati egiten zen. Zatietako bat Portugalen gordetzen zuen familiak eta bestea migratzaileak onik iristean bidaliko zuen. Bitarte horretan guztian diru bat geratuko zen konfiantzazko etxe batean gordeta Portugalen. Bigarren argazki zatia iristean pagatuko zen falta zen zatia eta ibilbide osoan jardundakoei bakoitzari bere partea emango zitzaion. José Vieira zuzendaria irudi horretaz baliatu zen *La photo déchirée*¹¹ dokumentala egiteko.

Bideak ez ziren ordea denak lehorraldekoak ere eta muga pasatu arren ez ziren beti salbu izaten. Piarres Larzabalek¹² kontatzen digu muga-pasa itsastar horietako bat.

Aitzineko egoitzan bezala, Zokoako etxe berrian mota guzietako eskaleak hurbildu zaizkit. Oroit naiz, etxe berri hortan sartu berri nintzelarik, goizetan bortzetan atea jo zidatela. Hor zeuden berrogoi bat portuges, batzu 15-16 urtekoak. Itsasontzi batean sartuak ziren Portugalen eta gauaz ixilka jautsirik Zokoako portuan norbaitek ekarriak zituen nere etxe aitzinera. Goseak hilak baitziren denak, jo nuen presatuenera: mahainean eman niozkaten nituen jateko guziak eta gero berak berotzen ari zirela kafe bero zorta bat prestatu nioten.

11 In José Vieira, *Gens du salto / Gente do Salto*, La Huit: 2005 Paris.

12 Piarres Larzabal, *Piarres Larzabalen idazlanak (VII)*, Elkarlanean: 1998 Donostia.

Gero, ez zen errex elgar aditzea: heiek ez zekiten frantsesik, eta nik ez nekien portugestik, «Michelin» bideetako karta harturik, erakutsi nioten non ginen eta nondik joan zitezkeen Donibanera, treina hartzera, hura nahi baitzuten. Kontseilatu nioten joatea ez denak batean, bainan multzo tipika. Bihamunean ikusi nuen egunkarian, gehienak hartu zituztela jandarmek eta mugara ereman.

Aipagarria da «Eskaleak» izeneko atalean bildu zuela kontakizun hori Zokoko erretoreak. Nolabait ere ijito agot portugez jendeak oro ziren askazi beltz zarpailekoak jende lander eskola gutxikoa. Halaxe kontatu digute Bizkai aldetik.

Portugesaren gurean beti izan da herrialde azpigaratu bateko jendeki iluna. Horren bi ale ekarriko dizkizuet. Lehenbizikoa: lankide batek, Administrazioako goi-mailako teknikaria bera, portugesez banekiela jakitean harriturik galdetu zidan ea zergatik ikasi nuen, ez zuela deusetarako balio. Bigarregoa: berrogeita hamar urte atzera eginda, aitita-amamak autobus batean doaz Bizkaiko Meatzaldean portugesez berbetan, eta alabak errieta egiten die, lotsarren, hola ez hitz egiteko esanez.

Kontuak kontu Paris ingururaino onik iritsita ere ez ziren paradisuko atea zabaltzen. Aldirietako *bidonvilleak* zeuzkaten zain txabola-auzoak. Honela kontatzen du Peixotok *Livro*¹³ liburuan nolako zirrara eragiten zieten heldu berriei halako bazterrek.

Iritsiak ziren. Kaleak lurrezkoak ziren, eta inguruko etxeek oholezko paretak zituzten, latorri herdoilduzko adabakiak, iltze okertuak, alanbreak. Baziren haur jostarien formak eta txakur deslaxiak. Adelaidek Libâniari segitu zion, hark bere senarrari segitzen ziola. Kanean, etxeetako ahotsak aditzen ziren. Kanean, aditzen ziren etxeetako haurtxoen negarrak, aditzen ziren gizonen korrokadak. Libâniaren senarrak giltza bat atera zuen sakelatik ateko giltzarrapoa zabaltzeko. Argia

13 José Luis Peixoto, *Livro*, Quetzal: 2010 Lisboa.

piztu zuen. Sartu ziren. Pospolo bat, petrolioeko argiontzia. Ogia olibekin. Lotarako txokoa atondu zioten. Etzan zen.

Orain Pablo Antoñanak bere libururako Igantzi-ko Mattin laguntzaile hartu zuen gisa berean geuk ere jende xehearen lekukotasunetara joko dugu hobeto konprenitzeko zer izan zen giza trafiko hura. Aurretik jasotako testigantzen xerka aritu gara eta hona ekarri ditugu. Izan ere jende xehearen ahotsak asmo etnografikoz nahiz filologikoz bildu izan dira sarri baina batzuetan emaitza harrigarriak eman dituzte guztiz ustekabeak. Oraintsuko adibide bat ekartzearren hara nola aurkitu ziren Ollakarizketan Gerra zibilean fusilatu batzuen gorpuzkiak:¹⁴

Todo parte de la lectura que Fernando Mikelarena hizo de un trabajo que realizó María Amor Beguiristain en el año 2007 y que se publicó en el 2009, en el Anuario Eusko-Folklore de la Fundación José Miguel de Barandiaran.

El estudio etnográfico «La vida en la cuenca de Pamplona durante el siglo XX» recogía el testimonio de Félix Echalecu, natural de Ollakarizketa. En él, el protagonista relataba que el gobernador militar ordenó cavar una fosa 100 metros de larga, donde enterrarían los cuerpos encontrados este lunes.

Beraz eusko folklorea lagungarri izan zen zertarako eta akademiarentzat bestela interesik izango ez zuen gizon bati ahotsa emateko eta hala gorpu horiek lurrazaleratzeko.

Ahozko lekuko horiek ezinbestekoak dira gainera zeren hemeroteketan albisteak (beti mugan atzemandako migratzaileenak) badiren arren ez dute

14 <https://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20190930/exhumados-en-varias-fosas-de-nafarroa-los-restos-de-16-fusilados-en-la-guerra-del-1936>

zarrastadarik eragiten. Ez daukate usainik berorik ar-nasarik. Har dezagun albiste labur horietako bat:¹⁵

HENDAIA

Gure jandarmek bortz portugez arrestatu dituzte. Gordeka iraganak ziren Espainiatik hunat. Orai Baionan dute atherbea.

Bost portugez klandestino atxilotu zituzten eta Baionara eraman. Albisteak ez du besterik eransten. Beharbada aski da minimalismo hori gure irudimena abian jartzeko Carverren ipuinetan bezala baina garai hartako jendeak pasa-pasa irakurriko zuen gertakaria-ren berri. Albiste sail horretan bada haatik kazetaritza konparatuko ariketa irrigarri bat portugesak zeharka aipatzen dituen.¹⁶

GUARDA ESPANOLEN IXTORIOA

Aboztuaren lehen egunetan asko jendek eta asko kazetek kondatua dute ixtorioa.

Bainan ez guziek berdin.

Bertzeak bertze harritzeko da zoin urrun dauden elgarre-tarik *La voz de Españaren* erranak eta *Sud-Ouest* kazetarenak.

Huna batzu eta bertzeak.

La Voz de Españaren araberrako kondaira

Hiru guardia zibilez eginikako patrulla bat patrullatzen ari zelarik aurkitu zen Ibardin gain-aldean eta bidea galdu zuen portugez batzu ezagutu beharrez eta jakin gabe sartu ziren Frantziako lurrean.

Hiru guardak beren soldado jauntzitan zauden, usaiako beren armekin.

Bet-betan kausitu dira Urruñako frantses herrixkan.

Han ezin ederkiago errezebitu zituzten.

Hain xuxen eskualde hortan egiten dira besta jostagarri batzu, hala nola kontrabanda-gaua edo kontrabandixten las-

15 Herria (1946-11-07), 66. zk., 2. or.

16 Herria (1973-09-13), 1206. zk., 4. or.

terketa, eta abar.

Hortako asko herritarrek uste izan dute numero folkloriko bat zela.

Pausuko jandarmeak abisatu orduko, frantses buruzagiek oto bat eskani diote hiru guarda zibileri Espainiarat itzul ahal ziten.

Hori laster egin zuten, deus bertzerik gabe.

Orai *Sud-Ouesten* irakurtua

Larunbat arratsean, zortziak eta erdietan, hiru karabine-rok, behar baino gehiago edanik Beran ziren besta batzuetan, deliberatu zuten besta segituko zutela Frantzian, soldado ez zen lagun batekin, hau otozain.

Muga iragan-eta Ibardineko patarrean, sartu ziren hunara beren armekin (hiru pixtola, bi mitralleta, zizpa bat), deus eragozpenik gabe.

Erran behar da mugako poliziak leku hortan arratseko zortzi orenetan uzten duela bere zerbitzua, aduana ordutik ordaintzen zaiolarik.

Barrandari zen guardak dio ikusi zituela hiru gizon guarda beiti bainan ez armarik.

Lau gizonak Urruñan izan ziren eta bi ostatutan edan zuten, asko jende harrituak zaudela.

Polizako komisarioak eta Pausuko jandarmek izan zituzten telefono-dei batzu Jandarmek nahiko zituzten Urruñan espaiolak arrestatu, bainan ez ziren beren xederat heldu.

Gauerdi ondoxean, Irungo Guardia Zibileko Komendantari emanak izan ziozkan beren armekin.

Horra portugesen estakuruan beren burua libratu nahi izan zuten txapeloker bazter-nahasleen pasadizoa. Albisteak argi erakusten du nolakoa zen mugaldeko giroa eta era berean zeinen ohikoa zen portugese-pasa bazter horietan. Eta noski asko esaten du kazetarien iturriez eta jokamoldeaz.

Ahozko literaturak ere ezin esan askorik hauspotu duenik portugeseenganako enpatia. Bada Mattin Trekuren bertso bat¹⁷ mugaldean gertatutako

17 Mattin Treku, *Ahal dena*, Auspoa: 1972 Donostia. 113-115. or.

tragedia bat kantagai duena Jean Haritzelharrek paratutako sujetata batetik abiatuturik (Baigorri, 1967). *Herrian argitaratutako albiste bat da gai-jartzaileak emandako hari-muturra.*

Larunbatean Ezpeletako mendi maldan den oihan batean, Espainiako mugari hurbil, aurkitu dute gizon gazte baten gorputza. Jandarmek inkesta egin dute eta laster jakin portugesez bat zela, ixilka etorria. Ez du iduri izan duela ez kolperik, ez bertze tratamendu gaixtorik. Itxuren arabera, oinez bide luzea eginik, eta beharbada ez aski janik, lehertua gelditu da lurrean, eta han zendu.

Gai-jartzaileak orduan galdatzen dio bertsolariari hiru edo lau bertso jartzeko portugesearen azken auhena kantatuz. Eta honela osatu Trekuk bertsoa.

Sujet eder bat emana naute
pixka bat kanbiatzeko,
nahiz adinik aski banuken
nik ere serioteko;
errana naute gizon gazte hoi
bertsuetan aipatzeko,
Portugaletik nola heldu zen
ogia irabazteko.

Portugalen e naski bizia
ibilki baita balantzan,
mundu hunetan soinuak dauku
dener irakusten dantzan;
ta hura ere hunat heldu zen,
bai, zerbeiten esperantzan,
t'harek gaizuak zer pents'ote du
biziaren akabantzan?

Hura're naski zerbeit goguan
Frantzi alderat heldu zen,
gure bizian ensaiatzia
denentzat ez al da zuzen?
Bainan Jinkoak uste gabian

bizia baitauku kentzen,
nun nahikua izan zadien
Jaungoikoaren haurra zen!

Azken bertsua kantatuko dut
harentzat umil umila:
sendo etxetik partitu
eta bidian gelditu hila;
orai harentzat bihotz barnetik
ni otoizketa nabila,
bertze desirik ez dut egiten:
zeruan gerta dadila!

Kontsolamendu giristinotik du gehiena bertso sailak. Ez dio horratik heltzen mamiari alegia azken auhenak kantatzeari. «Azken igurtzia» ematen dio gertakariari mina arintzeko. Bertsolariak onartzen dio portugesarari bizi hobe baten esperantzan abiatzeko eskubidea. Hor bada nolabaiteko elkartasun-agerraldia. Dena dela Jainkoak bizia ustekabean kentzen digula esanda arras urruntzen da lehertuta azken hatsa eman duen gizon horren egiatik. Kasu honetan *Herriako* albisteak sentiberatasun handiagoa ageri du bertsolariaren bertso sailak baino.

Uste dut goraiatzekoak direla Xalbadorrek jarritako bertso batzuk: «Mendian galdu direnei»¹⁸ sorta. Berriz ere Ezpeleta du gertaleku tzarkeriak. Ordukoan afrikarrak ziren hilak baina gogoetak berdin balio du portugesezat. Argi mintzatzen da Urepeleko artzain koblakaria ahoan bilorik ez duela.

Beren ustez hartua zuketean, etxetik ateratzean, gogo zuen lekuraino heltzeko dirurik aski; bainan norbaitek bildu

18 Lehenbizi hemen argitaratuak: *Herria* (1973 Baiona), 1209. zk., 5. or. Bertso sortak Xenpelar saria irabazi zuen. 1974an, eta, ondotik, sarrera-hitz eta guzti, liburu honetan jaso zen: Fernando Aire, *Odolaren mintzoa*, Auspoa: 1976 Donostia. 171-174. or.

zioketen dena mendiari lotu baino lehen, eta han utziko zituzten, haur sortu berri bat gauazko sedenean, norbaitek bilduko duelako menturan, nork edo nork utzi ohi duen bezala.

Horren egitea edo norbaiten jo buruan eta botatzea dituzten kantzeko, berdintsu zaut eni.

Eta zer erran gure agintarietaz? Frantzian aski barna sartuz geroz, haizu ziren arrotz horiek egoiterat. Zendako ez bada utz mugan ere pasatzerat eragozpenik gabe?

Eta bertso sorta osoa utziko dugu hemen mozten auzartu ez eta (azken bi ahapaldietako isipuu-ukaldiak ere ez).

Gauza triste bat publikatzeko kantatzerat naiz abian;
horra zer berri zabaldu zaukun berriki Euskal-herrian:
laguntza faltak berekin duen pairamenaren erdian,
hiru gizonak beren bizia galdu duela mendian.

Etziren gure arrazakoak mendian galdu direnak,
Jaingo Jaunaren bixtan ordea anaiak girade denak;
kolorez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak,
bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak.

Afrikan hunit zatozin, eginik bide luzea;
ezin jasana zuketuen nunbait herriko ezin bertzea;
beren bizia hobetu nahiz, gosez ta hotzez hiltzea;
bas'ihiziek gorenaz dute holako heriotzea!

Diru zuteno laguntzaileak bazituzten ene ustez,
bainan zombaiten karitatea egiten da diru hutsez;
hartarik kanpo axola guti bertzen arima gorputzez;
gauza horrek nau orroit arazten Judasez eta Jesusez.

Ezin bertzea berekin dauka betitik herri pobreak,
hango jendea tirriatzen du bizi modu bai hobek;
haren ondok zabiltzalarik, hil dira dohakabeak ...
Ai! Ezpeletan aurten nolako primaderako loreak!

Bas'ihiziak gerizatzeko badute lege bipilik;
heietan zombait ihizatzeko ez du gizonak pegilik;
eta jendeak norbaiten faltaz mendian goseak hilik ...
Lege horien sustatzaileak gelditu dira ixilik.

Boteretsuak ilargiraino igan zauzkigun orduan,
nehoiz bezanbat injustizia ikusten dugu munduan:
batzu dirutan emokatuak, gako guziak eskuan,
eta bertzeak ogia galdez, biziaren irriskuan.

Dirua deno gure nagusi, ikusiren da holako:
aberatsentzat atekak zabal, hertsu pobrearendako;
iduritzen zaut, gizona bada erreprotxurik gabeko,
bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko.

Arrotz horiek horrela hiltzen ikusiz gure artean,
nolaz eduki ginezake guk kontzientzia bakean?
Orroit gaitezen, atsalde batez, Galbarioko gainean,
gu guzientzat hil izan zela Jesus kurutze batean.

Jesus maitea, otoitzez nago kurutzearen oinetan,
ixuri duzun odol saindua ez dadila debaldetan;
gure lurrean hil zure haurrak harzkitzu, otoi, besotan,
arraza berex eta mugarik ez den erresuma hortan!

Berandutzen hasia zaigu orde. Has gaitezen
protagonistei hitza ematen pasatzaileei nahiz pasa-
tuei. Portugesei ahotsa emateko *Memorias do Salto*¹⁹
atarira jo dugu eta testigantza-aukera zabal horretatik
Acácio Sousaren hitzak hautatu ditugu (Bragança-
ko barrutiko Mogadouro herrian jaioa eta 1964an Frantzia
aldera *a salto* emigratua).

Dirua irabazteko emigratu nuen Frantziara. Eta bidaia
gogorra izan zen. Hamaika egun behar izan nituen Parisa
iristeko. Duero ibaia txanel txiki batean pasatu genuen sokaz
tiraturik. Espainiarrek harantz tiratzen zuten. Ura barrura sar-
tzen zen eta banaka pasatu gintuzten. Gero bestaldean egun
bat egin genuen ezkutaturik sastraka batzuen tartean. Gauean
auto batzuk etorri ziren gure bila eta Espainia osoa zeharkatu
genuen Pirinioetaraino. Zortzi ginen auto baten barruan.

Pirinioetaraino iritsi eta hantxe hasi zen oinezko ibilal-
dia. Gauez ibili eta egunez gordeta egoten ginen. Gose handia

19 http://memoriasdosalto.com/entrevistas/009mog_acacio_sousa/

pasatu genuen. Ogi zati bana ematen ziguten txokolatea edo inoiz txorizoa barruan sartuta. Eta horrela ibiliz zeharkatu genituen Pirinioak oinez. Gau batez Frantziara iritsi ginen eta jateko beroa eman ziguten orduan etxalde batean. Trenerako txartela eman ziguten han eta Pariseraino joan ginen trenez.

Hemengo mugalaria ezaguna zen. Bazituen kontratatzaileak jendea biltzeko Frantziarako. Nik 8 mila ezkutu pagatu nituen beste batzuek 10 beste batzuek 12 (horiek lana ziurtatua zuten Frantziara ailegatzean). Nik ez. Lan ziurtaturik gabe joan nintzen. Hemen zati bat pagatu nuen. Hara iritsi ginenean bidali genuen agindua beste erdia ordaintzeko. Argazki baten erdiarekin geratu ziren eta guk bestea bidali genuenean gainerakoa pagatu.

Oinez asko ibili ginen. Zapatilla berri batzuk erosi nituen hemen Mogadouroko azokan eta zolak gasta-gasta eginda zeudela iritsi nintzen Parisa. Hara iritsi ginenean geltokian baziren taxiak (portugesak). Ea taxirik nahi genuen eta baietz eta eraman gintuzten guk generaman helbidera. Dirua eskatu ere bai eta diru gutxi guk eta batere gabe geratu ginen. Eta helbidean dirua utzi ziguten (apaiz bat zen) beste helbide batera joateko ehun kilometrora beste tren batean...

Irakurri eta entzun ditudan testigantzetan oinetakoak sarri ateratzen dira autura. Oinetako desgokiak edo abarketak erosi beharra edo Parisa oinutsik iristen zirenak...

José Vieira zinegileak *Gente do salto* dokumental-bildumako liburuxkan gogoan ditu Chilly-Mazarin-gobidonvillean gizon-emakume haiei aditutako xangrinak.

Ez ditut inoiz atzendu gurera dokumentuak egitera zetozen haien desbenturak. Gogoan dut negarrez ari zen gizon ttar bat. Haren lagunetako bat, indarra ahiturik, bidean hila zen, berak ikusi gabe nola. Mugalaria atzean geratu zen, eta, bat-batean, tiro bat aditu zen mendialdean. Gure auzoko bati jipoi ederra emana zioten mugalariak eta hiltzat bertan utzi Pirinioetan. Gero, senar-emazte batzuk etorri ziren goizaldean gure atea jotzera. Mugalariak dena kendua zieten latorrizko auzoaren aurrean laga aurretik. Lehertuta zeuden, Pirinioetan ibilaldi luzea

egin ondoren, eta egunak ziren ez zutela ezer jan.

Euskal Herrira etorrita ere badira makinatxo bat lekukotasun. Batzuk zinez lazgarriak: itoak lehertuak bortxatuak. Izugarrikeria handiak gertatu dira baina baita muga-pasa lasaiagoak ere. Nik Amaia Apalauzak eta Maite Lakarrek²⁰ Donamarian bildutako testigantza bat ekarriko dizuet (batura moldaturik) ongi aski erakusten duelakoan zer tratatu ematen zitzaizen portugesei Pirinio alde honetan.

Handik erran zidaten bazirela sei lagun, portugesak, eta ekartzeko haiek. Eta ni eske joan nintzen hara, mendira. Eta mendira joan nintzelarik zortzi behor harrapatu nituen, sei jende zirela eta zortzi behor ekarri. [...] Gero, ondoko egunean berriz ekarri nituen hamabi lagun. Eske joan, eta bertze sei behorrekin batean ekarri nituen, denak batean. Eta, heldu nintzelarik, portugesak, zer egin nituen?, galdu bidean.

Baina nola joaten zineten, lerroan?

Bai... holako lerroan.

Zu lehenengoa?

Ni, seguru... Haiek ez zekiten biderik. Eta behorrak...

Eta behorrak?

Behorrek ez dute ikasten biderik.

Eta zer? Lotu zenituen edo hola?

Behorrak lotu, bata beste bati, buztanetik lotu sokarekin lerroan ekarri, eta haien gibelesko aldean, atzeko aldean, portugesak. Eta ni ailegatu nintzelarik egun batean, portugesa denak falta. Behorrak lotu, eta portugese eske zakurren ipurdira berriz ere. Eta euria leher ari zuen. Eta hantxe kuzkurturik harrapatu nituen denak. Eta gero egin genituen [...] ez galtzeko gehiago, ni aitzin jarri, eta nire gerritik holako edozein lokarri atxiki eta hona lotu. Denak lotu elkarri hola. Eta orduan ez baitira galtzen...

²⁰ Grabazio argitaragabe hau lan honetarako jasotako artean dago: Amaia Apalauza Olló eta Maite Lakar Iraizoz: *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernua 2005.

Portugesak lotuak eta behorak ere bai.

Behorak ekarri eta hemen utzi, eta gero joan nintzen portugesak eske. Eta gero orduan portugesak berriz behorra den tokiraino ekarri. Eta orduan ez ziren galtzen, denak lotuak baitziren... Nire gibeletik denak, ni aitzina, eta holaxe. [...] Azken-azkeneko behorari lotu portugesak nik, buztanetik. Beharko, galtzen baitziren! Eta handik eraman nituen Legasara ailegatu ginelarik, han utzi behar nituen, eta hala egin nituen han utzi...

A, gero, bertzea erran nizun... Urean nola bota zen, han pasatuta. Kontatu nizun dena...

Hori nola pasatu zen?

Orduan portugesak utzi nituen. Eta zen, ba, bidea hola, mehar-mehar pasatu beharra. Berrogei bat metro bai, pasatu beharra zen. Eta hona zen belagia, eta bertzaldera ura, ugaldia. Eta egin zitzaidan bat erori ugaldia niri. Eta ni neroni sartu nahirik urean, eta atera nuen kanpora. Ongi, gainera! Ez zen ito!

Eta ez zen inoiz gertatu portugesen bat hiltzea hemen inguruan edo...?

Hila? Bai... izan dira bat baino gehiago. Niri behin ere ez, e! Nik ongi, ongi kontu egiten nituen.

Hori zen ba... Goiti horretan bada borda bat, goitian, eta egin zuten harat ekarri. Denbora txarrak, negua baitzen, eta harat ekarri zuen. Hotzak arrunt, eta jada ezin... ezin zen etorri, eta egin zuen bordan utzi hura, eta bertzeekin joan, eta hura bakarrik. Eta, bertzeak eraman zituelarik, hura eske etorri zen, eta ordurako hila harrapatu zuen.

Eta normalean zenbat portuges eramaten ziren? Eta zenbaten artean?

Guk... portugesak... segun: batean hamar, bertzean hogei, bertzean ehun, bertzean berrehun... Ailegatu gara hiru lagun berrehun lagun eramatera. Bat aitzin-aitzinean, bertzea erdian eta bertzea gibelean.

Eta nondik nora eramaten zenituzten? Hemendik?

Hemendik... gero Frantziara pasatzen genituen. Haiek

haratago-haratago egin, eta gero Frantzian sartu, Legasatik aitzinago joanda.

Hori zuek? Edo beste norbaiti pasatu?

Bai, gehiena bertzeak. Guk ere egiten genituen eraman eta Frantziara pasatu. Eta Ultzamatik ekartzen zituzten hor-ko mendi horietara, eta hor hartzen genituen guk. Ultzamara behin edo bertze ailegatzen ginen, bai, ekartzen genituen handik beretik ere.

Eta guardia zibilekin pasatu zaizu zerbait ere? Portugesak eramaten?

Erran nizun... [irriz] Orduan zen, ba, berrehun gizon genituen... ni nintzen gibelean. Egarririk zeuden denak, eta han aska batean ura bazen... edo heldu zen. Eta banaka ura edanarazi, eta martxa, martxa, martxa, martxa, martxa. Eta aitzineko bajada zelarik, bi kaskotan bazeuden bi guardia, holako kasko batean... Tuboaren azpitik zen bidea, bide tiki bat. Handik aitzina, eta ni pasatzen nintzelarik, bertzeak segitu... Eta beheiti, bi lagun, holako bizkar batean zeuden, altxaturik zeuden haiek, guardiak. Eta *mekauen dion!* Gero... erdioko hari ere erran nion han pasatzeko, gelditzeko toki batean, denak pasatzeko. Eta pasa zirela biak juntatu ginen, hura eta ni [...]. Eta, han, hola bizkarrean hartu goiti:

—Ui! Ui! Horiek guardiak dituk! –nik segituan erran-. Horiek guardiak...

Ezagutu egin nuen... Goiti hasi:

—¡Compañeros! ¡Compañeros!

Hala erraten ari zitzaizkien portugesei.

—Guar... guardiak, guardiak dituk –nik lagunari–.

—Bai, bai [apal].

Eta oi, oi! Ta ni hemen bezala, eta hura aitzinago zen joana. Ta ni, da!, besotik hartu hark...

Guardia zibilak?

Guardia zibilak [irriz]. Eta pistola esku batean, eta bertzearekin hartu. Eta jotzen dut ezkerrekin, holaxe, guardia zibila, eta airean bota. Bai! *Echando putas!* Hura bota, eta guk martxa, lekutu handik. Dena ezpela eta baitzegoen...

Aurpegia tapatuta ibiltzen ginen... Haiek ez zekiten ni han izan nintzenik, ez ninduten ezagutzen.

Portugesek ez identifikatzeko?

Portugesek ez ezagutzeko...

Egiaz aberetu egiten zituzten portugesak mugapasa horietan. Haiek ere horixe zuten gogoan: behi ardi zaldi artean pasatuak zituztela Pirinioak edo abereak bezala eramanak zituztela kamioietan pilaturik edo mendiko asketan edaten zutela.

Grabazioak entzun eta entzun Xan Airek *Ahotsak*²¹ atarirako jasotako urregorritzko ale batekin egin dugu topo. Adierazgarria hain zuzen solas honetan guztian jardunean aritu den kontzientziaren errotrariari alea botatzen dion tobera erakusten digulako ttak-ttak-ttak.

Jenderik pasatu al duzue?

Jendeak jendeak...? Portugesen bat beharbada pasatu dugu baina ez gauza handirik. Korrientea zen.

Portugesena ez dizu inork esan? Portugesena ez du inork esan nahi ustez fama txarra duelako. Kontent ziren beren etxean miseria zuten. Nahiz pagatuz konforme ziren etortzeaz honat lanerat. Orain ez dela horrela pentsatzen... Jendeak du beldur pixka bat esateko badakizu *trafic d'homme*... Erreputazio hori.

Plazer handia egiten zieten kontrabandistek horiei: lana atzeman eta anitz joan dira diru eginda harat gero Portugalerat. Ze etxe puskak egin dituzten han. Portugesak langile gogorrek dira.

Hori baino txikituago eman liteke irina galbahe xehegotik pasatuta apika. José Vieira zinemagileak ehoago eman zuen *Cinemeteque*²² atariak eginiko elkarriketa batean:

21 <https://ahotsak.eus/biriatu/pasarteak/btu-003-017/>

22 <http://www.cinemeteque.com/2017/06/15/limmigration-na-pas-ete-pour>

Idea xoil bat nuen buruan: immigrazioak sistema kapitalista oso-osoan erakusten du, bidegabekeriarik eta harrapakeriarik gordinenean. Konparazio baterako, 1960ko hamarkadan immigrazioa ikertu zuten kazeta frantsesek honelako izenburuak erabiltzen zituzten: «Garai modernoetako esklaboak» eta «Pobre-tratua». *Paris Match* berak ere «Portuges-trafikoa» titulatzeko erabili zuen.

Gehiegi luzatu gara baina eta konturatzerako Lambaça eta André galdu ditugu bistatik. Ez ditugu dagoeneko harrapatuko. Kanta dezagun bada:

*Vieram cedo
Mortos de cansaço
Adeus amigos
Nao voltamos cá
O mar é tão grande
E o mundo é tão largo...*²³

Iñigo Roque Eguzkitza
Arkotxa-Bediaga, 2020ko urtarrila

nous-un-long-fleuve-tranquille-itw-de-jose-vieira/

23 José Afonso «Zeca», *Canção do Desterro (Emigrantes)*: 1970 Lisboa.

Liburu hau 2020ko otsailaren 17an ari ginen
maketatzen. 115 urte lehenago Ivan Kaliaiev poeta
eta iraultzaile sozialistak Sergei Alexandrovitx
Romanov Moskuko gobernadorea hil zuen. Handik
aste batzuetara, 27 urterekin, Kailiaiev poeta
heriotza zigorrarekin hil zuten. Hala bukatzen zen
Boris Pasternaken 1905. urtea poema:

Sergei Alexandrovitx! ... eraila!
Ekaitza maitatzen hasi nintzen
otsaileko lehenengo egunetan.

